PERINATAL HIPOXIC ISCHEMIC INJURY IN THE AUDITORY PATHWAY AND THE EFFECT OF SEVERAL NEUROPROTECTIVE AGENTS

ABSTRACT

Despite improvements in neonatology, perinatal hypoxic-ischemic (HI) encephalopathy remains one of the main causes of disabilities in term-born infants. This specific pathology underlies many neurological disorders such as learning difficulties, language and attention deficit, hyperactivity disorders and cerebral palsy. Moreover, it is also a notable risk factor for hearing impairments which affect neonates.

Insult from hypoxia-ischemia causes immediate neuronal injury and exhaustion of cellular energy stores, as the main cause of HI brain injury is the deprivation of glucose and oxygen supply, which initiates a multi-faceted cascade of biochemical events. The combined effects of cellular energy failure, acidosis, glutamate release, intracellular calcium accumulation, lipid peroxidation, and nitric oxide neurotoxicity provoke, in many cases, the death of the cells, either by necrosis or apoptosis, a divergence that will depend on the severity of the insult, the maturational state of the cell or the brain region affected, among others. After a thorough understanding of the mechanism underlying neural plasticity following hypoxic-ischemic brain injury, various neuroprotective therapies have been developed for alleviating brain injury.

The aim of this work is to evaluate with morphofunctional, molecular and cellular methods the effect of a panel of antioxidants on HI-induced auditory deficits. To this end, we studied the effects of Nicotine, Melatonin, Resveratrol and DHA on the neonatal auditory system via measurement of auditory evoked potentials and characterization of the morphological, molecular and cellular integrity of the IC.

Miren Revuelta Aramberri, Leioa 2015

DOCTORAL THESIS

2015

MIREN REVUELTA ARAMBERRI

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

DEPARTMENT OF CELL BIOLOGY AND HISTOLOGY
SCHOOL OF MEDICINE AND ODONTOLOGY
UNIVERSITY OF THE BASQUE COUNTRY

PERINATAL HIPOXIC ISCHEMIC INJURY IN THE AUDITORY PATHWAY AND THE EFFECT OF SEVERAL NEUROPROTECTIVE AGENTS



Miren Revuelta Aramberri
Leioa, 2015

LABURPENA

Despite improvements in neonatology, perinatal hypoxic-ischemic (HI) encephalopathy remains one of the main causes of disabilities in term-born infants. This specific pathology underlies many neurological disorders such as learning difficulties, language and attention deficit, hyperactivity disorders and cerebral palsy. Moreover, it is also a notable risk factor for hearing impairments which affect neonates.

Insult from hypoxia-ischemia causes immediate neuronal injury and exhaustion of cellular energy stores, as the main cause of HI brain injury is the deprivation of glucose and oxygen supply, which initiates a multi-faceted cascade of biochemical events. The combined effects of cellular energy failure, acidosis, glutamate release, intracellular calcium accumulation, lipid peroxidation, and nitric oxide neurotoxicity provoke, in many cases, the death of the cells, either by necrosis or apoptosis, a divergence that will depend on the severity of the insult, the maturational state of the cell or the brain region affected, among others. After a thorough understanding of the mechanism underlying neural plasticity following hypoxic-ischemic brain injury, various neuroprotective therapies have been developed for alleviating brain injury.

The aim of this work is to evaluate morphofunctionally, molecularly and cellularly the effect of a panel of antioxidants on HI-induced auditory deficits. To this end, we studied the effects of nicotine, melatonin, resveratrol and DHA on the neonatal auditory system via measurement of auditory evoked potentials and characterization of the morphological, molecular and cellular integrity of the IC.

AURKIBIDEA

Orrialdea

LABURDURAK

ABR	Auditory Brainstem Response
ACPD	1-amino-1,3-cyclopentrane dicarboxylic acid
AMPA	α-amino-3-hydroxy-5-methyl-4-isoxazolepropionic acid receptor
ANOVA	Varinace analysis
APE	Auditory Evocated Potential
ATP	Adenosine tri phosphate
BAX	bcl-2-like protein 4
BSA	Bobin serum albumin
Bcl-2	B-cell lymphoma 2
Ca^{2+}	Calcium ion
$[Ca^{2+}]_I$	Intracellular calcium concentration
CBF	Cerebral blood flow
cGMP	Cyclic guanosine monophosphate
CIC	Central part of the inferior colluculus
CNS	Central nervous system
CPA-4	Lysophsphatidic acid-4
DAB	Diaminobencidin
dB	Decibelium
DCFH-DA	2,7-dichlorodihydrofluorescein diacetate
DHA	Docosahexaenoic acid
DMSO	Dimetilsulfoxid
DNA	Deoxyribonucleic acid
ECIC	External cortex of the inferior colliculus
ECochG	Electrocochleogram
EHI	Hypoxic Ischemic Encephalopathy
FALS	Forward Angel Light Scatter
GFAP	Glial fibrilary acidic protein
GLUT1	Glucose transporter 1
GST	glutation S-transferasa
H^+	Hydrogen ion
H_2O	Water
H_2O_2	Hydrogen peroxide
HI	Hypoxia ischemia
HIF1	Hypoxia inducible factor 1
HSA	Human serum albumin
HSF1	Heat shock factor1
HSP70	Heat shock protein 70
Hz	Herz
IC	Inferior colliculus
IP3	Inositol tri phosphate
ISS	Integrated Side Scatter
K^+	Potassium ion
K^+-ATPase	Potassium ATPase
LPS	Lypopolisacarid
MBP	Myelin basic protein
MET	Mechanoelectric channels
MPTP	Mitochondrial Permeability Transition Pore
ms	milliseconds
N_2	Nitrogen ion

Na^+	Sodium ion
Na^+/K^+	Sodium/potassium channel
nAChR	Nicotinic acetylcholine receptor
NADH	Nicotinamide Adenosine Dinucleotide
NAO	10-N-nonyl-acridin orange
NEUN	Neuronal specific protein
NMDA	N-Metyl-D-aspartate
NO	Oxide nitric
nNOS	Oxide nitric sintase
O^-	Superoxide ion
O_2	Oxygen
OH^-	Hydroxide ion
$ONOO^-$	Peroxinitrite
PaO2	Arterial Oxygen partial presure
PBS	Phosphate buffered saline
PCR	Polymerase chain reaction
pH	Potential of hydrogen
PVL	Periventricular leukomalacia
ROS	Reactive oxygen species
RT	Retrotranscriptase
SOD	Superoxide dismutase
SOD1	ZN-SOD
SOD2	Mn-SOD
TNF	Tumor necrosis factor
TTC	Tetrazolium chloride
VEGF	Vascular endothelial growth factor
ZO	Zonula ocludens
µV	Microvolt
µl	Micro liter
ΔO2Hb	Oxygenated hemoglobin
ΔHHb	Desoxygenated hemoglobin
ΔcHb	Total hemoglobin change

IKERKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Nahiz eta gaur egun neonatologian hainbeste aurrerapen izan, entzefalopatia hipoxiko iskemikoak (HI) hainbat patologia eragiten ditu (garun-paralisia, lengoaia atzerapena eta atzerapen mentala, ikasketetan ezgaitasunak eta epilepsia edo kasu batzuetan heriotza ere sor dezake) eta jaio berrien ohiko ezgaitasuna izaten jarraitzen du. 1000 jaio berrien artetik bik pairatzen duten ezgaitasuna da baina jaiotza goiztiarretan eragin hau %60ra igotzen da.

Komunikatu ahal izateko entzumena beharrezkoa da. Komunikaziorako gaitasuna bizitzako lehenengo urteetan eskuratzen da eta garatu ahal izateko entzumen egokia beharrezkoa da. Honegatik, entzumenaren gaixotasun goiztiarrak lengoaian atzerapena eragin dezakete, izan ere, lengoaia eskuratzearen erraztasuna galdu egiten da hipoakusia bat gertatzen den momentuan, eguneroko bizitzan ondorio anitzak eraginez.

Hipoxia iskemiak entzumen-sisteman eragiten dituen ondorio gehienak Kortiren organoan eta gongoil-espiralean dauden zeluletan aztertu dira, eta ondorioz, entzunbidean duen efektuaren azterketak oso eskasak eta zatikatuak dira.

Gure ikerketa honetan jaio berrien bi modelo esperimental erabiliko ditugu, arratoia eta txerria. Izan ere, 7 eguneko arratoi baten eta txerri jaio berri baten (< 5 egun) garunaren garapena, gizaki jaio berri goiztiar baten antzekoa da. Honegatik, 7 eguneko arratoiak eta txerri jaio berrien garunak gizakia jaio berriaren garunarekin konparatu daitezke garapen neurologikoa aztertzeko.

Azken hamarkadan, aurrerapen ugari egon dira hipoxia iskemiak eragiten dituen aldaketa biokimiko eta molekularren azterketan eta helburua, kaltearen lehen orduetan gertatzen den eraso sakona zehaztea izan da. Aurrerapen hauen eraginez, aukera terapeutiko zehatzen erabilera begiztatu dute. Gainera, azken urteetan ikerketa basiko, esperimental eta klinikoak aurrerapen ikaragarria izan du eta baita hipoxia iskemia baten ostean aukera terapeutiko zehatzak erabiltzea kaltea aurreikusi edo murrizteko. Ikerketa hauek antioxidatzaileek hipoxia iskemia baten ondoren kaltea murrizten dutela baieztatu dute, baina ikerketa hauek kortex edo

hipokanpoan soilik oinarritu dira. Honegatik, hipoxia iskemia baten ondorioz entzumen-sisteman gertatzen diren kalteak aztertzeaz gain, antioxidatzaileen eragina ikertuko dugu eta garuneko eremu honetan ere efektu neurobabestzailea duten edo ez.

SARRERA

Gizakiaren kalte neurosentsorial ohikoena entzumen gaitasunaren galera da. Helduen artean, entzumenaren ezgaitasunak ohiko diren 10 gaixotasunen artean aurkitzen da eta gizon zein emakumeetan eragina duten gaixotasunen artetik bosgarren lekuan dago. Gainera, mundu osoan zehar 70 milioi pertsonengan eragina duela uste da.

Entzumenaren gaitz hauen artean % 18a kalte perinatalen ondorioz gertatzen da (Mazurek et al., 2006) eta 1000 jaio berrien artetik batek pairatzen duela uste da. Baina kaltearen gogortasunaren edo goiztiartasunaren arabera, ume hauek arreta neonatal intentsibo bat behar izan ezkero, proportzio hau % 2-4ra igotzen da. Honegatik entzumen galeraren detekzio goiztiarra beharrezkoa da eta hau, diagnosi teknika espezifikoen bitartez soilik egin daiteke. Gainera, hobe da, jaio eta lehen hilabeteetan “screening” programa bereziak erabiltzen badira (Moreno-Aguirre et al., 2012).

2.1 BELARRIAREN MORFOLOGIA

Belarria organo sentsorial konplexua da, hiru zatitan banatua dagoena, kanpo-belarria, erdiko belarria eta barne-belarria eta entzumen-sistema (soinuaren pertzepzioaz arduratzen dena) eta bestibulu-sistema (oreka mantentzeaz arduratzen dena) partekatzen ditu (1.irudia).

Kanpo-belarriko hodia (haragi kolerez 1.irudian) soinua tinpanoko mintzera garraiatzeaz arduratzen da, non erdiko belarria kokatua dagoen. Honek, soinu uhinak jasotzen ditu eta bibrazio mekaniko bihurtzen ditu, ondoren belarriko hezurtxoek anplifikatu, arroza kolorez 1.irudian (mailu, ingude eta estriboa), eta barne-belarrira (urdin kolorez) transmititzen dituelarik. Azken hau bi konpartimentu labirintikoz osatua dago, bata bestearen barnean: **hezur-labirintoa** eta **mintz-labirintoa** (hezur-labirintoaren barnean dagoena).



1.irudia: 1. Belarriaren zatien eskema: Kanpo-belarria (haragi kolorea), tinpanoko mintza eta hezurtxoak (arrosa) eta barne-belarria bere hezur-labirinto eta mintz-labirintoz osatua (urdin kolorez). 2.Barne-belarriko mintz-labirintoaren irudi zehaztuagoa (Ross & Pawlina, 2011).

a) **Hezur labirintoa**, hezur tenporalaren barnean konektatuak dauden hiru espazioz osatua dago (1.irudia, lauki laranja):

- Bestibulua, erdiko eremua, mintz-labirintoko sakulu eta utrikulua dituena.
- Kanal-erdizirkularrak, tutu formako eremuak beraien artean perpendikularki kokatuak eta bestibuluari elkartzen direnak.
- Koklea edo barraskiloa, bestibuluaren jarraipena dena kanal-erdizirkularren kontrako aldean.



2.irudia: Zelula sentsorial ziliatuen banaketa (Stevens & Lowe, 2006).

b) **<u>Mintz-labirintoa</u>** (2.irudia), koklea-labirintoz eta bestibulu-labirintoz banatua dago.

Mintz-labirintoaren eremu batzuetan 2 jatorri ezberdineko zelulak aurkitzen dira, entzumen-funtzioan eragina dutenak, zelula sentsoriala ziliatuak eta euskarri zelulak.

Zelula sentsorial ziliatuak (2.irudia) bestibulu eta koklea-labirintoko mekano-hartzaile epitelialak dira, energia mekanikoa energia elektriko bihurtzen dutenak gero nerbio bestibulo-koklearraren bitartez entzefalora garraiatua izateko. Zelula hauek, beraien gainazalean banatuta daude zilio-bala deritzonaren bitartez, estereo-zilio ilara (edo zilio sentsorial) batez osatua, atzeko eremuan kokatzen diren zilioak altuagoak izanik, 2.irudian ikus dezakegun bezala.

2.1.1 Soinuaren detekzioa barne-belarrian

3. irudian ikus dezakegun bezala, koklea-hodiak paralelo diren 3 konpartimentutan banatzen du koklea "eskala-media" deritzona, endolinfaz betea dagoena eta "bestibulu-eskala" eta "tinpano-eskala" perilinfaz beteak daudenak.
Bitarteko aldatsean (bestibulu-eskala), Kortiren organoa aurkitzen da. Bertan 3 zelula mota bereizi dira: sentitze-zelulak, euste-zelulak eta kanpo falange-zelulak (Young & Heath, 2000). Kokleako behe-pareta mintz basilarra da eta Kortiren organoa hemen eta mintz tektorioan finkatzen da (3.irudia).

Horrela, frekuentzia jakin bateko soinu batek mintz basilarraren (hodi koklearraren beheko pareta) desplazamendua eragiten du, desplazamendu maximoa zonalde oso estu batetan gertatzen delarik. Desplazamendu hau espezifikoa da soinu frekuentzia bakoitzarentzako, honela, frekuentzia altuko soinu batek bibrazio maximo bat eragiten du



3.irudia: Koklearen irudi eskematikoa (Ross & Pawlina, 2011).

mintz basilarreko koklearen oinarrian eta alderantziz, frekuentzia baxuko soinuek desplazamendu maximoa koklearen erpinean eragiten dute (3.irudia). Fenomeno honi kokleako banaketa tonotopikoa deritzo.

2.1.2 Transdukzio neuronala

Transdukzio neuronala kokleako zelula ziliatuen esterozilioen (ile itxurazko luzapenak) mugimenduen bitartez hasten da (4.irudia). Zelula ziliatuak mintz basilarrari lotuta daude eta soinua heltzean dar-dar egiten dute. Mintz basilarrak heltze puntu ezberdinak dituenez, zitzailadura efektu bat gertatzen da bibrazioak barne belarriarekin talka egiten dutenean. Bibrazio hauek, transdukzio mekanoelektrikozko kanalak aktibatzen dituzte (MET), esterozilioen ertzetan kokatzen direnak eta honela mintz plasmatikoan potentzial elektrikoak sortzen dira, estimulu hau nerbio koklearraren bitartez entzefalora iristen delarik.



4. irudia: Transdukzio neuronalaren ilustrazioa zilioen mugimendua

Nerbio koklearra osatzen duten neuronak bipolarrak dira, hau da, 2 luzapen dituzten neuronak dira, axoia eta dendrita (giza neurona gehienak luzapen ugariz osatuak daude, axoi bakarra izanik baina dendrita ugari). Neurona bipolarrek gehienetan funtzio sentsoriala dute eta zentzuen bitartez gertatzen diren nerbioen seinalearen garraioan espezializaturik daude.

Kokleako neuronen soma Kortiren gongoilean kokatzen da eta axoiak entzefalo enborrean sartzen dira erraboileko nukleo koklearretan amaituz (5.irudia). Hemendik irteten diren nerbio zuntzak talamora arte heltzen dira eta hemendik lobulu tenporaleko entzumen kortexera.



6.irudia: Giza entzumen-atariaren irudia. 16 y 18.000 Hz-ko soinu frekuentzien artean sentsibilitate-ataria ezberdina da. Pujol & Puelen (1999) aldatutako irudia.

2.2 SOINUAREN MONITORIZAZIOA

Soinu uhinen propietate fisikoak, **frekuentzia** edo tonua, ziklo segundoko neurtzen dena edo Hertz (HZ) eta **intentsitatea** dira. Azken honen neurketa unitatea anplitudea edo bolumena da eta dezibelioetan neurtzen da (dB).

Giza belarria 16 y 18.000 Hz-ko soinu frekuentziak hautemateko gai da eta ardatz itsurako forma dauka non beheko frekuentzien arabera giza entzumen-ataria neur daiteke eta goiko frekuentzien arabera minaren atariak zeintzuk diren azter daitezkeen (Payehuanca, 2004) (6.irudia).



5.irudia: Nerbio koklearrean dauden neuronen kokapen puntuen irudia. Soma Kortiren gongoilean dute kokatua eta axoiak entzefalo enborreko nukleo koklearretara iristen dira (Ross & Pawlina,, 2007).

Jaio berrietan entzumen gaitasuna neurtzeko metodo objektiboak beharrezkoak dira, sentsibilitate eta espezifikotasun altua dutenak. Gehien erabiltzen direnak entzumeneko potentzial ebokatuak (AEP) eta igorle otoakustikoa dira (Bogacz et al., 1985).

Entzumeneko potentzial ebokatuak aztertzeko garunean elektrodoak kokatzen dira. Baina animalien bitarteko azterketetan elektrodoak entzumen-bidearen zeharreko nukleoetan koka daitezke eta era honetan sentsibilitate handiago lor daiteke, distortsioak eta interferentziak gutxituz.

2.3 ENTZUMENEKO POTENTZIAL EBOKATUAK (AEP)

Estimulu akustiko baten ostean entzumen bidean zehar gertatzen diren boltaje aldaketak neurtzen dituzte. Potentzial hauek ondorengoen bitartez sortzen diren aktibitatea jasotzen dute:

a) Neuronaren despolarizazioa, akzio potentzialen bitartez.

b) Kitzikatzaile edo inhibitzaile izan daitezkeen potentzial postsinaptikoengatik.

AEPk jasotzeko gaitasuna lau faktoreren araberakoa izango da (Plourde, 2006):

1- Estimuluko aktibatzen diren zelula kopurua
2- Aktibazioa sinkronizatzeko gaitasuna
3- Aktibazioaren geometria
4- Inguruko ehunek duten eroapen elektrikoaren araberakoa (hezur, muskulu, glia…)

Estimuluaren intentsitatearen aldaketak, anplitudearen aldaketak (oreka puntutik uhinaren banatze puntu maximoa (μV) eta latentziaren aldaketak dakartzate eta baita beraien morfologiaren aldaketa (7.irudia). 2 aldagai hauek intentsitatearekin duten erlazioa kontrakoa da, honela, anplitudea intentsitatearekiko zuzenki proportzionala da eta latentzia alderantzizko proportzionaltasuna dauka.



7.irudia: Uhin baten irudikapena non latentzia eta anplitudea irudikatzen diren.

AEPen sailkapena latentziaren araberakoa da, hau da, estimulua sortzen den momentutik beraren erregistrora arte igaro den denbora. Lehen 10 ms-tan gertatzen direnak potentzial azkarrak dira, entzefalo enborrekoak hain zuzen ere, denbora honetan hona iristen direlako eta hemen kokatzen dira nukleo koklearrak. Nukleo hauek neurona ezberdinez osatutako taldeak dira ugaztunen burmuineko enborrean kokatzen direnak eta nerbio koklearraren soinuen informazioa jasotzen duten lehenak dira.

Grason-Staler konpainiak teknologia berri bat garatu du GSI Audera bitartez entzumen diagnostikoa egiteko. Programa honek funtzio koklear zein erretrokoklearra neurtzea baimentzen du AEP bitartez, test ezberdinak burutuz latentziaren araberakoak direnak:

- **Elektrokokleograma** (ECochG): Entzumen estimulu baten ondoren, koklearen erregistro elektrofisiologikoak egitea ahalbidetzen du.
- **Entzefalo enborreko entzumenaren erantzuna (ABR) eta ABR elektrikoa**: “clic” bati erantzuteko sortzen diren garuneko uhinak neurtzeko proba bat da.
- **Erdiko latentziako erantzuna (AMLR**): 10 eta 100 msko latentziak dituzten uhinak dira, talamoan eta kortexean sortzen direnak.
- **Latentzia luzeko erantzuna:** Erantzun kortikalak dira, 100 eta 500 ms bitartean neurtzen direnak.

2.4 SOINUAREN INTERPRETAZIO ZEIN IRUDIKAPENA

AEPk neurtzerako orduan 5 tontor aurkitzen ditugu estimulu baten ondorioz egitura anatomiko ezberdinek ematen dituzten erantzunen tontorrak direnak, hain zuzen ere (8.irudia). Estimuluaren intentsitatea aldatu egin daiteke eta honela pertsonen entzumen-ataria zein den ezagutu dezakegu. Gortasunarekin erlazionaturiko arazoren bat diagnostikatu daiteke entzumen-atari hau 40dB-tik gora dagoenean.



8.irudia:Entzumeneko potentzial ebokatuen irudikapen grafikoa (Torrente et al., 2007).

AEP goiztiarrak (latentzia motzekoak (<10ms)) azterketa klinikoetan erabiltzen dira entzun-bideren aktibitatea neurtzeko:



9. irudia: Estimulu baten ondorioz sortzen diren zelulen erantzunen kokapen anatomikoa entzefalo enborretik kortexera arte (Pujol, 1999).

- Entzumen nerbioa = I tontorra
- Nukleo koklearrak = II tontorra
- Goi oliba =III tontorra
- Alboko lemniskoa = IV tontorra
- Behe kolikulua = V tontorra

9. irudian talamo eta entzumen kortexa (tenporala) irudikatzen dira, hemen hasten dira AEP erdiko uhinak eta uhin berantiarrak.
Potentzialak anplitude baxukoak dira (<uV) eta batezbesteko adierazgarria behar dute (1000 eta 2000 errepikapen artekoa) hondoko zaratetatik banatzeko.

2.5 ENTZEFALOPATIA HIPOXIKO-ISKEMIKOAREN KONTZEPTUA

Entzefalopatia hipoxiko iskemiko (EHI) oxigenoaren (O_2) ekarpenaren murriztea (hipoxia) eta entzefalora doan garuneko odol fluxuaren (CBF) murriztea (iskemia) gertatzen denean sortzen den sindromea da. Hipoxemia sistemiko baten ostean sor daiteke (asfixia, arnaste eskasa), O_2-aren garraioan aldaketaren bat gertatu delako (anemia zorrotz bat, karbono monoxidoaren bidezko intoxikazioa) edo garuneko odol fluxuaren murrizte orokor batengatik (gelditze kardiakoa) (Volpe, 1995; Caplan L., 2000).

Asfixia perinatalak aldaketa neurologikoak sortzen ditu, justu jaiotze ostean agertzen direnak, esnatzeko gaitasuna galtzen dutelarik, tonu muskularrean eta erantzun motorretan aldaketak gertatzen direlarik eta erreflexu aldaketak konbultsioekin edo gabe. Asfixiak sortzen duen kaltea larritasun, iraupen denbora eta sentikortasun iskemiko selektiboaren araberakoa da (Johnston, 1998; Hilario et al., 2006, Álvarez-Díaz et al., 2007). Azken honen arabera, zelula batzuk heriotza pairatuko dute eta beste batzuk ilunantz iskemiko batean geldituko dira. Hauetariko neurona asko hil egingo dira, nahiz eta garuneko fluxua berreskuratu. Fenomeno honi atzeratutako heriotza zelularra deritzo eta bere adierazpen zelularra nekrosi selektiboa eta apoptosia dira.

EHI larrian adi egote eta aldizkako arnasketan arazo larriak egoten dira, hipotonia orokor eta hipoaktibitate garrantzitsu batekin. %50ak krisi konbultsiboak izaten ditu lehen 6-12 orduetan. Hurrengo 12-24 orduetan adi egote honen hobekuntza nabaria izaten dute, baina krisiak aurrera jarraitzen du eta baita apneak eta hipotoniak ere. Jaio osteko 2 eta 3 egunean kontzientzia mailan (koma) arazo larrienak izaten dituzte eta heriotza pairatzeko arrisku gehiena ere. Denbora hau igaro ostean, bizirik irauten dutenak, hobekuntza izaten dute normalean (Arenillas et al., 2009).

Lesio hipoxiko iskemiko baten ostean gertatzen diren fenomeno biokimiko eta molekularrei buruz gaur egun ditugun ezagutzengatik, geroz eta aukera terapeutiko gehiago aztertu izan dira asfixia perinatalaren mina arintzeko nerbio sistema zentralean. Honegatik ikerketa basiko eta esperimental honen bitartez kalte honek eragiten dituen heriotza zelularrak murriztea eta ikerketa klinikoei laguntzea espero da.

2.6 ENTZEFALOPATIA HIPOXIKO ISKEMIKOAREN AZKEN BERRIAK

Hipoxia giza gorputzeko oxigenoaren murrizketa da, honen eragilea, anemia, asfixia, apnea… izan daitekeelarik (James & Cherian, 2010). Garai perinatalean, garunak oxigeno gabezia izan dezake bi mekanismo patogenikoren bitartez: hipoxemia, odoleko oxigeno kontzentrazioaren murrizketa, eta iskemia, garunera doan odolaren kontzentrazioaren gutxitzea, eta ondorioz, bi kasuetan zeluletara iristen den oxigeno kontzentrazioa baxuagoa da. Honegatik zelulak beharrekoa duen energia sortzeko arazoak sortzen dira.

Giza nerbio-sistema zentralaren %80ko garapena ernaltze garaiko azken bi hiruhilekotan eta jaiotze osteko lehen hilabeteetan gertatzen da eta momentu honetan odol emariaren murrizketarekiko oso sentikorra da (du-Plessis & Volpe, 2002; Soehle et al., 2003). Honela, garai perinatalean gertatzen den hipoxia iskemiak sorturiko garunaren kaltea defizit neurologiko larrien eragile nagusienetakoa da (Volpe, 2001; Perlman, 2004). Bizirik jaiotzen diren umeen %0,5-

1ak hipoxia iskemia pairatzen du eta nahiz eta gaur egun intzidentzia asko jaitsi den, portzentaje honen heriotza tasa %27-50 ingurukoa da.

Asfixia (hipoxia) eta odol-emariaren murriztearen (iskemia) arteko konbinazioak, agerikoak diren kalte fisiologikoez gain, zelula mailan aldaketak sortzen ditu, batez ere neuronetan, izan ere, oxigeno gabeziarekiko oso sentikorrak dira eta hipoxia oso larria badin bada, beste zelula talde batzuk ere kaltetuak ager daitezke, hala nola, gliako zelulak besteak beste (Hilario et al., 2005; Goñi-de-Cerio et al., 2007). Egoera honetan, garatzen ari diren oligodendrozito zein astrozitoak sentikortasun maila altuagoa dute gertatzen den exitotoxizitatera eta sortzen diren erradikal askeei, honegatik heriotza pairatzeko joera handiagoa dute (Inder & Volpe, 2000; Alvarez et al., 2007).

2.7 ENTZUMENA ETA KALTE HIPOXIKO ISKEMIKOAREN ARTEKO AZKEN BERRIAK

Ikerketa esperimental eta klinikoek baieztatu dute hipoxia iskemiak entzumen gaitasunaren galera dakarrela. Lehenago esan dugun bezala, lengoaiaren gaitasuna lortzeko entzumena beharrezkoa da gizakian eta komunikatzeko gaitasun hau garatzeko jaiotzetik entzun-bide egoki eta osoa izatea beharrezkoa da. Hau honela ez bada, entzumeneko gaitzak lengoaian atzerapen garrantzitsuak izan ditzakete pertsonen garapen psikikoetan eragin handia izanez.

Entzun-bidearen heltzea 18 hilabeterekin bukatzen da eta nerbio-sistema zentralaren mielinizazioarekin erlazionaturik dago (Hepper & Shadidullah, 1994). Entzun-bidearen garapen eta mielinizazio normala kaltetua gerta daiteke hainbat gaitzengatik, hala nola, birus bidezko infekzio, hiperbilirrubinemia, meningitisa, fetuaren sufritzea eta entzefalopatia hipoxiko iskemikoa. Adibide gisa, kernikterusean, entzun-bidea kaltetua dago nukleo koklearretan eta hipoxia larria denean, atzerapen metal eta desordena muskularrarekin lotzen da (Lefebvre, et al., 2002; Cao et al., 2010). Gaitzaren zergatia geroz eta lehenago aurkitu orduan eta

errazago berreskuratu ahalko da lengoaiaren gaitasuna, emaitza terapeutiko hobeagoekin (Lefebvre et al., 2002; Gallardo & Vera, 2003).

2.7.1 Entzumen atariaren aldaketak

Entzefalo enborreko entzumenaren erantzunen neurketa (ABR) oso diagnosi método garrantzitsua da ezgaitasunak aztertzeko eta oso erabilia da entzumen ezgaitasunak aztertzeko asfixia perinatal baten ostean. Aurretik egindako hainbat ikerketetan ikusi da ABRak odoleko oxigeno kontzentrazioaren murrizketaren ostean sortzen diren lesio koklear eta neurologikoekiko oso sentikorrak direla. Izan ere, murrizketa hauek Kortiren organoko zelula neurosentsorialetan kalteak sortzen dituzte edo neuronen galera entzefalo enborreko nukleoetan, hau da, nukleo koklearretan edo behe kolikuloetan (IC) (Jiang et al., 2000; Wilkinson & Jiang, 2006). Neuronen kalte honek nerbioaren garraioan eragina izan dezake, entzumeneko ezgaitasunak sortuz (Misra et al., 1997).

ABRen neurketa metodo sentikor eta fidagarrienetako bat da entzumeneko ezgaitasunak neurtzeko (Tomimatsu et al., 2003; Smit et l., 2013). Espezifikoki, gehien erabiltzen diren aldagaiak I eta V uhinen latentziak dira eta baita I eta V uhinen bitartea, entzefalo enborreko eroapen denbora bezala ezagutzen dena eta neuronen eroapen, funtzio sinaptiko eta mielinizazioarekin zuzenki erlazionatuta dagoena (Jiang et al., 2008).

Entzefalo enborrean gertatzen diren entzumenaren erantzunaren aldaketak eta neuronen heltzea urteetan zehar ikertua izan da. Animaliekin egindako ikerketan, entzefalo enborreko entzumen erantzun egokiak izateko anatomia egokia izatea beharrezkoa dela ikusi da, hala nola, neurona taldea, bere axoiarekin, sinapsi egokiarekin eta amaierako hartzailearekin non ABR bakoitza bertara iristen den. Hauetariko zatiren batetan geldiuneren bat gertatu ezkero, anplitude eta latentzietan aldaketak gerta daitezke (Jiang et al., 2006).

I uhinaren latentzia handitzeak, entzumen-sistema periferikoko egituraren batean aldaketak daudela esan nahi du, bitartean, entzefalo enborreko barne-sisteman kalteak egoten direnean, erantzun hauen desagerpena gertatzen da edo latentzien luzatzea, hau da uhinen latentziak atzeratuak egotea (Simpson et al., 1985). I eta V uhinen bitarteko latentzia handitua egoteak berriz, gaitz neurologiko baten adierazle da (Wilkinson & Jiang, 2006).

Asfixia perinatal baten ostean, ABRak entzumen atarian aldaketak daudela erakusten dute, uhinen latentziak eta uhinen bitarteko latentziak handituz. Honen arabera, entzefalo enborreko eroapen denboran aldaketa esanguratsuak daude, uhinen anplitudearen murrizketarekin eta I eta V uhinen anplitude arteko ratioaren aldaketarekin (Hecox & Cone, 1981; Wilinson & Jiang, 2006; Jiang et al., 2009) (Fig. 10).

Entzumeneko estimulu baten ostean entzefalo enborreko egituren erantzunen ikerketan, I-III eta III-V uhinen bitarteko latentzien handitzea ikusi da (Tomimatsu et al., 2003; Jiang et al., 2009). HI baten ostean, batez ere latentzia eta anplitudearekin erlazionaturiko aldaketak ikusi dira eta entzumen-sistemako erdiko eremua (III-V uhinen tartea) kaltetuagoa agertzen da periferiako eremua baino (I-III uhinen tartea) (Jiang et al., 2004).



10.irudia: 7 eguneko Sprague-Dawley arrazako entzun-bidearen estimulu baten osteko egituren erantzunen irudi adierazgarria. Lerro zuzenak kaltetu gabeko arratoi baten entzun-bidea adierazten du eta marrazko lerroak HI pairatu duen arratoi batena.

2.8 LESIO HIPOXIKO ISKEMIKOAREN MEKANISMO FISIOPATOLOGIKOA

Odol fluxu eta oxigenoaren gutxitzeak metabolismoko eta nerbio ehunen funtziorako beharrezkoak diren 2 substratu energetiko nagusienak sortzea galarazten du: oxigenoa eta glukosa. Honengatik 2 aldaketa mota gertatzen dira, bat nerbio inpultsuaren transmisioaren aldaketa dakarrena eta bestea neuronen eta glia zelulen aldaketa metabolikoa dakarrena (Pascual et al., 2000).

Kalte hipoxiko iskemikoaren ondoren sortzen diren gertaerak kapitulu komun batzuetan banatu daitezke (11. Irudia): kalte energetikoa, homeostasi ionikoaren aldaketa, exzitotoxikotasuna eta erradikal aske eta oxido nitrikoak eragindako kaltea (Edwards et al., 1997; Biagas, 1999; Dammann & Leviton, 1999; Edwards & Azzopardi, 2000), garuneko kortexeko eremu parasagital eta garun basalak eremu kaltetuenak izanik.



11. irudia: Garun iskemia baten seinale kliniko eta patologikoen garapena denboran zehar (Castillo & Rodríguez, 2004).

2.8.1 Kalte energetikoa

Mintzen integritate eta potentzia mantentzeko beharrezkoa da homeostasi egokia edukitzea eta honetarako ATP gisako energia beharrezkoa da. Energia hau glukosaren metabolismo aerobioren bitartez lortzen da, baina oxigenoaren kontzentrazioa gutxitzen denean, energia altuko fosfatoen desagerpen azkarra gertatzen da eta ehun mailan laktato kantitatea handitzen da (Cater et al., 2003). Honetaz gain, kalte energetiko honengatik, hipoxia iskemiak aminoazido exitotoxikoen kantitatea handitzen du, glutamatoaren adibidez. Na^+ aren gutxitzearen eraginez, K-ATPasa aktibitatea eta homeostasi honen galeraren eraginez gradiente ionikoa mantentzeko ezgaitasun zelularraren eraginez, lehen heriotza gerta daiteke. Gainera, N-methyl-D-aspartate (NMDA)ren gehiegizko estimuluak, glutamatoaren hartzaile bat, neuronen kalteak eta zelulen degenerazioa eragin dezake.

Aurrerago esan dugun bezala, garuneko energia iturri nagusiena glukosa da, hau garun kapilaretatik neuronen zitoplasmararte garraiatzen da. Hemen, glukosa molekulak bide glukolitikoan sartzen dira pirubatoaren, acetil-CoA eta azkenik NADH sortzeko, elektroien iturri nagusiena. Elektroiak, zitokromoaren entzimaren

bitartez, mitokondriaren mintz barruan sartzen dira ATPa sortuz (Volpe, 2012; McLean & Ferriero, 2004).

Asfixia perinatal bat gertatzen denean, bi motako kalte energetiko gertatzen dira: lehenengoa eta bigarrena (12.irudia)



12.irudia: Hipoxia iskemia baten osteko kalte energetikoaren azalpena. Flores-Compadre et al., (2013) aldatutako irudia.

Lehen kasuan, metabolismoa anaerobioki gertatzen da eta pirubato eta laktatoa metabolizatzen da, neuronen zitoplasman pilatuz eta pHa jaitsiz. Momentu honetan kortexeko aktibitate elektrikoa galtzen da eta garun (talloko) funtzioak mantentzen dira, baina ATP menpeko Na^+/K^+ ponpa kaltetua dagoenez, edemak agertzen hasten dira. Galera hau denboraren eta larritasunaren menpekoa da (James & Cherian, 2010; Ferriero, 2004; Fatemi et al., 2009).

Bigarren kalte energetikoa lesioa gertatu eta 24 ordutara gertatzen da. ATP eta fosfokreatina kantitateak murrizten dira mitokondrio mailako fosforilazio oxidatzailearen aldaketaren adierazle izanik. Elektroiak zitokromo entzimako katean biltzen dira eta laktatoaren kontzentrazio intrazelularrak handitzen dira, pilatze hau handiagoa izanik talamoan eta nukleo basaletan. Bigarren kalte energetiko hau aktibitate parosistikoaren paraleloa da eta baita arrail presinaptikoko glutamato eta aspartatoaren gehiegizko askapenaren ondorioz gertatzen diren konbultsioen paraleloa. Aktibitate parosistiko hau elementu zitotoxiko batzuen ondorio da (Esteve et al., 1999):

→ **Zelula barneko kaltzioaren handiagotzea**: Zelula barnera kaltzioaren sarrera, neuronako mintzeko glutamato bidezko boltaje menpeko kanalen bitartez. Kaltzioa erretikulu endoplasmatiko eta mitokondrioetatik askatzen da eta fosfolipasa, proteasa eta nukleasak aktibatzen ditu kalte nuklear eta zelularra eraginez. Kaltzioak gainera hainbat entzimen aktibitate pizten du, hala nola, xantina oxidasa eta oxido nitiko sintetasena, erradikal askeen askapena dakartenak.

→**Zelula kanpoko gehiegizko glutamato kontzentrazioa**: Zelula kanpoko glutamatoaren igotzeak NMDA eta AMPA hartzaileak aktibatzen ditu eta hauek era berean Na^+ y $Ca2^+$ barneratzen ditu zelula barnera. Azken hauek hanturaren sortzaileak dira eta zelularen ondorengo apurketarena (Flores-Compadre et al., 2013).

→**Erradikal askeen askatzea**: Erradikal askeen pilatzeak zitokromoaren katean, superoxido ioien sortzea eragiten du. Oxido nitrikoa askatzen da (NO) mikrogliaren, astrozitoen eta neutrofiloen aktibazioaren eraginez eta NO gehitze honek garuneko basodilatazioa eragiten du.

→**Hanturaren mekanismoak**: Interleukina 1β, 6 eta TNF zitokina hanturaren askatzearen eraginez gertatzen da (13.irudia).

Kaltea sortzen duten mekanismo zelularren ostean, hipoxia iskemiak bi heriotza zelular mota bultzatzen ditu, morfologikoki oso ezberdinak direnak: nekrosia, edema zelular bat, mintz zelularraren haustura eta hantura erreakzio baten ondorioz sortzen dena eta apoptosia edo heriotza zelular programatua, uzkurtutako zelula, kondentsatutako kromatina eta zatitutako DNA (Inder & Volpe, 2000; Ohyu et al., 2000). Heriotza zelularra bat-batean hasten da eta egun edo asteetan zehar luzatzen da. Berriki egindako hainbat ikerketek uste dute apoptosiak paper garrantzitsua betetzen duela kalte hipoxiko iskemiko baten ostean jaioberrien garunean (Hu et al., 2000; Yakovlev & Faden, 2004). Umetoki barneko kaltearen ondoren hiltzen diren jaioberriek apoptosi morfologia duten zelula ugari aurkezten dituzte.

13.irudia: Hipoxia iskemia baten ostean gertatzen den porrot energetikoaren eraginak.



2.8.2 Kaltzioaren homeostasiaren galera

Aurrerago esan dugun bezala, gertakizun hipoxiko iskemiko baten ostean kaltzio askearen eta eskualde sinaptosomikoaren sarrera, NOren bidez, gertatzen da nukleoaren barnealdera (Mishra et al., 2002). $[Ca^{2+}]_i$-ren handiagotzea boltaje edo agonista bitartez erregulaturiko hartzaileei, hala nola, NMDA glutamato hartzaileak, loturiko kanalen bitartezko kaltzioaren sarreraren bidez gertatzen da (Mills, 1996; Peinado et al., 2000).

Kaltzioaren aldaketa eta honen mugimendua kanpo zonaldetik zelularen barne zonaldera, hiru aldagairen menpekoa da; Zelularen mintzera lotuta dauden kanale kopurua, mintzaren bitartezko kaltzioaren garraioa eta bere bahitzea mitokondrio eta erretikulu endoplasmatikoarengatik (Irvin, 1986; Denton & McCormack, 1990; Paschen, 1996). Baina kaltzioaren sarrera gelditzen ez bada, aipaturiko organoen bitarteko bere hartzea eta gordetzea gutxi izatera hel daiteke. Gainera glutamato eta NMDA hartzaileen arteko loturak kaltzio kanala irekitzeaz gain, mintzeko fosfolipasa A_2 eta C aktibatzen ditu, fosfoinositol bifosfatoa fosfoinositol trifosfato (IP3) eta diazilglizerol bihurtzen duena. IP3ak, erretikulu endoplasmatikoko kaltzio kanalak zabaltzen ditu eta kaltzioaren kontzentrazio handitzeak, kaltzioa gordetzeko kaltzio kanalak zabaltzen ditu, honela sorgin-gurpil bat gertatzen da non ATP menpeko Ca^{2+} ponpa ez eraginkor gertatzen den (Paschen & Doutheil, 1999).

Mitokondrioak ere paper garrantzitsua betetzen du zitosoleko Ca^{2+} altua mantentzen (Rustin et al., 2000). Egoera normalean, zitosoleko kaltzioa mitokondrioan gordeta aurkitzen dugu eta azido trikarboxilikoaren zikloko hainbat deshidrogenasa aktibatzeko erabiltzen da. Gainera, Kaltzioa mitokondriotik irteteak, Na^+ sartzea baimentzen du zitoplasmatik, mitokondrio barnera, ondoren berriz ere zitoplasmara askatzean H^+ aren sarrera baimenduz mitokondria barnera. Era honetan, H^+ gradiente bat sortzen da fosforilazio oxidatzailea gertatzeko beharrezkoa dena. Baina sistema guzti honen desoreka gerta daiteke mitokondrioaren mintzaren potentzialaren galeraren ondorioz (Sugrue et al., 1999). Zelula kanpoko Ca^{2+}-ren pilatzeak mitokondrioaren iragazkortasuna eta mintzaren potentziala kaltetu dezake, izan ere, honen eraginez,

mitokondrioko mintzean poroak (MPTP: Mitochondrial Permeability Transition Pore) zabaltzen dira gradiente elektromekanikoaren galera (Cassarino & Bennen, 1999; Puka-Sundvall et al, 2000).

2.8.3 Exzitotoxikotasuna

Exitotoxikotasunak, aminoazido hartzaileen aktibazioaren ondorioz gertatzen den neuronen heriotzari egiten dio erreferentzia. Garuneko eta muineko neurogarraiatzaile kitzikagarri nagusiena azido glutamikoa da (McGeer, 1989; Thomas, 1995). Glutamato kontzentrazio altuak, minutu bat baino denbora gehiagoz mantentzen bada, heriotza zelularra dakar (Sattler et al., 2000).

Nerbio sistema zentralaren barruan, glutamatoak funtzio ugari ditu, neurogarraiatzaile kitzikagarria izateaz gain (Michaelis, 1998):

1. Ekintza azkarreko neurogarraiatzaile kitzikatzatzailea izatea.
2. Neuronen kitzitagarritasunaren (plastikotasun sinaptikoan) epe luze eta erdiko aldaketen eragile eta mantentzean parte hartzen du.
3. Neuronen migrazioaren eragile diren prozesuetan parte hartzen du
4. Axoien heltze eta sinapsi formazioa modulatzen du
5. Talde neuronal ezberdinen biziraupena sustatzen du.
6. Proteinen aktibitate metaboliko, adierazpen geniko eta sintesian aldaketak eragiten ditu.
7. Endekapeneko prozesuetan paper garrantzitsua dauka.

Glutamatoak bere hartzaile ezberdinen bitartez eragiten du. Hauek molekularki eta ezaugarri elektrofisiologiko zein farmakologikoz desberdindu daitezke (Michaelis, 1998; Ozawa, 1998). Orokorki, glutamato hartzaileak ondorengo sailkapena daukate: hartzaile ionotropikoak, AMPA, kainatoa edo N-Metil-D-Aspartatoa (NMDA) bezalakoak, kanal ionikoz osatuak daudenak eta hartzaile metabotropikoak, LPA-4 eta ACPD bezalakoak, G proteinei loturik aurkitzen direnak (Farooqui & Horrocks, 1991). Bi kasuetan, aminoazidoak amaiera sinaptikotik kentzen dira berriz hartze mekanismo

baten bitartez. Mekanismo hau neurona zelulen %80k eta glia zelulen %20ak burutzen dute (Storm-Mathisen e Iversen, 1979).

Egoera ezberdinak daude hartzaile kitzikatzaileak gehiegi estimulatzen, neurogarraiatzaileka askatu eta ondorengo exzitotoxizitatea eragiten dutenak. Aminoazidoen despolarizazio eta askatzea eragiten duten kausen artean, erreserba energetioen gutxitzea, homeostasi ionikoaren galera, lesio traumatikoak, zahartzea, endekapeneko gaixotasunak eta prozesu iskemikoak aurki ditzakegu (Olney, 1994; Peinado et al., 2000).

Glutamato hartzaileen gehiegizko aktibitateak, glutamatoaren gehiegizko askatzea eragiten du eta ondorioz mintz postsinaptikoko hartzaileen aktibitatea handitzea. Hauen aktibazioak kanale ionikoak zabaltzea eragiten du eta sarrera zein irteera fluxuak zabaltzen dira. Honek, barne zelulako kontzentrazio ionikoaren aldaketa Dakar: gehien ezagutzen diren fluxuak, sodio, kloro zein kaltzioarenak dira. Gehiegizko kaltzio ioiak, barne zelulako seinalizazioaren menpeko den kaltzioa aktibatzen du eta honek era berean bigarren mezulariak aktibatzen ditu, normalean heriotza zelularra dakartenak (Sattler & Tymianski., 2000).

2.8.4 Estres oxidatzailea

NMDA eta exitotoxikotasun bidezko heriotza zelularreko hartzaileen arteko konexioak oxido nitrico sintasa (nNOS) aktibatzen du eta ondorioz oxido nitrikoa eratzea. Honek, mitokondrioak erreaktibo diren espezie gehiago (ROS) sortzea eragiten du , kalte oxidatzailea eraginez eta zelulen heriotza (Dugan & Choi, 1994; Vannucci & Hagberg, 2004).Erradikal askeak, toxikotasun maila altuagoa eragiten dute ioi superoxido (O-), hidroxilo (OH^-), ur oxigenatua (H_2O_2), oxido nitrikoa (NO) eta peroxinitritoaren ($ONOO^-$) bitartez (Herce-Pagliai et al., 1998; Hogg, 1998; Suzuki et al., 2002).Oxigeno espezie erreaktibo hauek zelulak kaltetzen dituzte, lipidoak (mintzetako azido poli asegabeak), proteinak (entzimak batez ere) edo azido nukleikoak oxidatuz (Floyd & Carney, 1992; Wei, 1998).Aminoazido kitzikatzaileak (Pérez-Velázquez et al., 1997) berriz ere hartzea

galarazi dezake eta kaspasa edo endonukleasa bezalako entzima proteolitikoak aktibatzea (Sapolsky 1992; Puka-Sundvall et al., 2000; Fukuda et al., 2003).

Oxido nitrikoa adibidez, nerbio sistema zentraleko mezulari fisiologikoa da eta oxido nitriko sintasaren (NOS) erreakzio katalitikoaren bidez sintetizatzen da. Entzima honen aktibazioak NO, L-citrulina eta L-arginina askatzen ditu transdukzio bidean parte hartzen dutenak, barne zelulako cGMP kontzentrazioa handituz. Hipokanpoko neuronen zirkuitu maila batzuetan, NOaren askapenak epe luzeko potentziazioa eragiten du eta zerebeloan berriz, epe luzeko depresioa (Fedele & Raiteri, 1999).Baina gehiegizko NOak galera energetikoa, aminoazido kitzikatzaileen askatzea eta beste erradikal askeekin erreakzionatzeko gaitasuna handitzea eragiten du (Gross & Wolin, 1995; Bolaños et al., 1998; Bolaños & Almeida, 1999). Honela, NO eta superoxido ioiaren sarrerak, nitrogenoaren espezie erreaktiboak sortzen dituzte, hala nola, peroxinitritoa ($ONOO^-$), azken hau erreakzio oso toxiko izanik (Pryor et al., 2002) (14.irudia).



14. irudia: Oxido nitrikoaren toxikotasuna hipoxia iskemia baten ostean (Bolaños, 1999).

Honegatik estres oxidatzailea apoptosiaren kausa nagusiena da eraso hipoxia iskemiko batean (Lin et al., 2003).

Antioxidatzaile gaitasun baxua eta burmuin kontzentrazio altua dela eta, garatu gabeko burmuina oso sentikorra da kate oxidatzailea. Burmuineko antioxidatzaile endogenoak, superoxido dismutasa (SOD), Cu bezala aurkitzen dena, ZN-SOD (SOD1) zitoplasman dagoena eta Mn-SOD (SOD2) mitokondrioan dagoena dira. Entzima hauek erradikal askeak H_2O_2 bilakatzen dituzte eta hau katalasa edo glutation peroxidasa bitartez, detoxifikatu daiteke H_2O bezala ezabatua izateko (Yu et al., 1994). Karbonil, peroxido edo epoxido taldeak dituzten metabolitoen aktibazio eza eragiten duen beste entzima bat glutation S-transferasa (GST) da, hauek erradikal askeen oxidazioaren eraginez sortzen direlarik (Hayes & Pulford, 1995). Erregenerazio sistema hauek, babespen antioxidatzailea manten dezaten, zelularen energiaren menpekoak dira, honegatik, hauek kaltetuak gertatzen badira edo hauen gabezia baldin badago, eraso hipoxiko iskemikoan gertatzen den bezala, garunak kalte oxidatzailea pairatzen du makromolekuletan eta ondorioz heriotza zelularra.

2.8.5 Geneen eta transkripzio faktoreen aktibazioa

Azken urteetan zehar adierazpen goiztiarreko geneak asko aztertu dira kodifikatzen dituzten proteinak transkripzio faktoreak direlako. Hipoxia iskemiak estresarekin erlazionaturiko hainbat geneen sintesia handitzen du, “heat shock proteins” bezala ere ezagutzen direnak. Proteina hauek, nahiz eta bere funtzioa zein den ez den oso ongi ezagutzen, kaltearekiko erresistentziaren handitzearekin erlazionatzen dira zelula mota askotan (Tang et al., 1997).

Hauetariko proteina batzuk kaltearen ostean adierazpen maila altua dute, adibidez, c-fos, c-jun eta proteo-onkogeneak neuronetan. Gene hauek kodifikatzen dituzten proteinak (FOS eta Jun) erantzun biologikoetan beharrezkoak diren gene batzuk erregulatzen dituztela uste da (Chen & Liu, 1996).

Transkripzio faktore ezagunetariko bat hipoxiak eragiten duen 1 faktorea da (HIF1), oxigeno eta erredox potentzialaren homeostasia erregulatzen dutena eta oxigeno

faltak eta oxigeno erreaktiboen bidezko estresarekiko adaptazioa errazten dutelarik (Kanngiesser et al., 2014). Hipoxia iskemia ondorengo HIF1aren aktibazioak inguruneko aldaketei egokitzea erraztea ahalbidetzen du, hala nola, intsulina menpekoa ez den glukosa garraiatzailearen absortzioaren handitzea (GLUT1) eta entzima glikolitiko, eritropoietina eta garapen endotelial baskular (VEGF) faktoreen adierazpena handitzea (Huang et al., 2000; Matsuda et al., 2005).

Kaltearen ostean berehala adierazten den beste gene bat heat shock factor 1 (HSF1) da, heat shock eragileren adierazpena (HSP70) positiboki erregulatzen duena. Azken honen aktibazioa garun kaltearen babesle bezala erlazionatu da (Kim et al., 2001).

Aipaturikoez gain, hainbat gene gehiago daude zeintzuen aktibazioa hendekatze prozesuekin lotu diren. Honegatik, garrantzitsua da kaltearen ostean berehala adierazten diren geneak zeintzuk diren ezagutzea eta beraien funtzioa zein de, honela, tratamendu neurobabesle bezala ikertu ahal izango dira.

2.8.6 Apoptosi eta nekrosi bidezko neuronen heriotzaren base molekular eta zelularra

Heriotza zelularra lesio zelularraren azken emaitza da, anatomia patologikoko gertaera garrantzitsuena, zelula mota guztiak kaltetzen dituenak eta hipoxia iskemiaren ondorio nagusiena dena. 2 era ezberdinetan gerta daiteke: ohikoena, nekrosi bidezko heriotza da, porrot energetiko zorrotz baten eraginez gertatzen dena, morfología zelularraren galerarekin eta azkenik hantura prozesu eta lisiarekin. Beste alde batetik, apoptosi bidezko heriotza ere gerta daiteke, kasu honetan energia bidezko zelula barneko mekanismoak aktibatzen dira eta zelularen degradazio erregulatua gertatzen da, beranduago zelula fagozitikoen bitartez ezabatuko dena hantura erreakziorik gertatu gabe (Arango-Davila et al., 2004).

Apoptosi bidezko heriotza zelularra ezagutzeko mekanismo bat gertaera goiztiarrak dira, gorpu apoptotikoak adierazle bezala dituztenak eta mintzaren asimetriarekin erlazionaturik daudenak. Mintz plasmatikoan zeharreko fosfolipidoen banaketa asimetrikoa da eta asimetría honen mantentzea hainbat aktibitate entzimatikorekin

erlazionaturik dago. Fosfatidilserinaren kanporatzea (normalean fosfolipidoak mintz plasmatikoaren barne aldean aurkitzen dira) aminofosfolipido translokasa eta eskamblasa entzimen aktibitatearen orekaren araberakoa da eta zelula barneko kaltzio mailak erregulatzen du. Zelula apoptotikoetan aminofosfolipido translokaza inhibitzen da eta eskrambasa aktibatu, honegatik, mintz plasmatikoaren asimetriaren galera gertatzen delarik. Honek, fosfatidilserina kanpo mintzean ipintzea eragiten du, hau makrofago hartzaile espezializatuen bidez ezagutua dena eta fagozitatu egiten du zelula (Lizarbe, 2007).

Apoptosiak kaspasen mekanismoa aktibatzen du. Kaspasak, zistein-proteasen familiako kideak dira, estrukturalki erlazionatuak daudenak eta denboran oso mantenduak, gainera oso beharrezkoak dira apoptosi bidezko zelulen heriotzaren seinalizaziorako (Holtsberg et al., 1998).

Gainera, mitokondrioak apoptosi eta nekrosi bideetan paper garrantzitsua jokatzen duela ezaguna da, zeinen eragina kaltearen intentsitatearen, kaltetutako eremuaren eta seinalizazio bideen eratorriaren araberakoa den (Ankarcrona, 1998; Green & Reed, 1998).Kanpo mintzaren permeabilizazioa Bcl-2 proteina familien menpekoa da. Mitokondrioaren zitosoleko Bax proteinaen translokazioak kanpo mintzean poroak sortzen ditu eta ondorioz proteina proapoptotikoak askatzen dira. Gainera, garatu gabeko garunena BAX proteinen adierazpena handiagoa da (Thornton & Hagberg, 2015). Honekin batera, apoptosi bidezko garapen faktore batzuen eskasia edo gabezia ezaguna da. Gainera, neuronen kasuan, garapen enbrionarioan zehar, beraien helmugara iristen ez direnak edo beharrezko loturak egiten ez dituztenak, bere buruaz beste egiten dute apoptosi bitartez (Clarke et al., 1998). Garapen faktore batzuen modulazio faltagatik gertatzen da apoptosi hau. Gainera, antiestres entzima (Taglialatela et al., 1998) batzuen indukzioak eragiten duten geneen gabeziak, edo faktore hauek kaltzioa bahitzen duten proteinetan duten akzioaren arabera, kalbindina adibidez, apoptosi hau garatzea eragin dezakete ere (Lipton & Kalil, 1995). Hainbat faktore trofikoren bidezko heriotza zelularraren makinariaren errepresio faltagatik ere heriotza prozesua eragin daiteke, izan ere, endonukleasak zelula guztietan aurki ditzakegu (Boonman & Isacson, 1999; Puka-Sundvall et al., 2000).

Bcl-2 proteinen erregulatzaile bat, p53 tumore supresore bezala proposatu den, mitokondrioaren iragazkortasuna eta apoptosia estimulatzen duela uste da, era honetan heriotza zelularra erregulatuz. Gainera, estres proteinen aktibazioa, bero talka sortzen duten proteinak adibidez, apoptosi bidezko heriotza gelditu edo galaraziko dute bai neurona zein zelula glialetan ere. Aktibitate hau burutzen duten geneen gehiegizko adierazpenak hipoxia iskemiak eragindako kalte zelularrarekiko tolerantzia bat eratzea baimenduko du (Ko et al., 2002).

2.8.7 Heriotza zelularraren ezaugarri morfologikoak

Zelula hiltzen denen, bere buruaz beste egiteko duen barne programa baten bidez, apoptosi bidezko heriotza gertatzen da. Apoptosian zehar, tamaina zelularraren murrizketa gertatzen da eta gorpu apoptotikoen sorrera (besikulak), ondoan aurkitzen diren makrofagoek fagozitatzen dituztenak.Zelulak bere tamaina murrizten du uraren galerarengatik (kloro kanalak) eta zitoeskeletoan aldaketak gertatzen dira. Fagozitatua izateko, hartzaile edo seinaleak izan behar ditu makrofagoek ezagutu dezaten. Gainera, ADNaren zatiketa gertatzen da, beti leku berdinetan.

Nekrosi izenak berriz, aldaketa morfologiko ugariri egiten dio erreferentzia, bizirik dauden ehunen heriotza zelularra eragiten duena, kalteturik dauden zeluletan entzimen degradazio akzioak erreakzionatuz. Zelula nekrotikoak eosinofilia handipena dute, zitoplasmako ARNak baimentzen duen basofilia normalaren eraginez eta desnaturalizaturik dauden barneko zelulako proteinak eta eosinen arteko loturak handitzen direlako.

Zelulak itsura homogeneoagoa izan dezake zelula normalekin konparatuz, glukogeno molekularen galeraren eraginez (Lizarbe, 2007).

Beste alde batetik, geroz eta hipotesi gehiago daude nekrosiak ere hipoxia iskemian eragina duela esaten dutenak, izan ere, programaturiko nekrosia, oso erregulaturik dago eta aurrerago azaldutako nekrosiaren ezaugarri morfologikoak ditu. Kaspasa menpeko apoptosia inhibitua dagoenean aktibatzen da, adibidez, birus edo ATP gabezi baten eraginez eta heriotza zelularreko hartzaile dituzten TNFalfa..en bidez eragiten da. Garatua dagoen garun batean iskemia baten ostean edo garatu gabeko garun

batean hipoxia iskemia baten ostean gerta daiteke. Momentu honetan, nekrosoma deituriko egitura eratzen da nahiz eta oraindik ez den ezaguna hau nola gertatzen den (Thornton, 2015).

Azken urteetan, nekrosi bidezko heriotza edo nekroptosia (kasu gehienetan) eta apoptosi bidezko heriotzan parte hartzen duten sustantzien ikerketan aurrerapen asko egon dira eta neuronen bizitzan eragina duten faktoreak zeintzuk diren (Arango-Davila, 2004).

2.9 ZELULEN AHULTASUN SELEKTIBOA

Garatu gabeko garun baten lesioen mekanismoak ezberdinak dira garatutako garunekiko (Volpe, 1995; Biagas, 1999; Edwards & Azzopardi, 2000; Inder & Volpe, 2000). Animalietan burututako ikerketak, jaio berrietan, hipoxia iskemia baten ostean eta efektu exitotoxikoen ostean zelula multzo ahulagoak daudela uste da (Ferriero & Miller, 2010).

Garatzen hari de garun sistemaren eta zelula moten ahultasun intrintsekoak kaltearen amaierako emaitza eta funtzioen aldaketak zehazten ditu. Garapenarekiko sentikor diren prozesuak garun organizazioa, haurdunaldiko 5.hilabetean hasten dena, jaio osteko hainbat urte beranduagora arte eta mielinizazioa, axoien inguruko mielinaren espezializazio altuak dira, azken hau jaiotze ostean azkartzen dena (Plessis & Volpe, 2002; Volpe , 1991).

Asfixiak aldaketa fisiologiko eta biokimikoak sortzen ditu, jaio berriaren nerbio sistema zentraleko aldaketetan eragina dutenak, hauen artean: odol fluxuaren alterazioa eta neurotransmisore kitzikagarri funtzioa duten aminoazidoen askatzea, hala nola, azido glutamikoa eta aspartikoa. Eszitotoxizitaea ere beste eragile bat da, garun metabolismoaren azkartzea eta hipokapnia (karbono bioxidoaren handiagotzea) eragiten duena, eta arnas arazo larriak, hipertentsio pulmonarra eta hipoxemi larria eragin dezakeena (Volpe, 1997).

1.taula: Perinatal garaiena garunaren garapenean eta giza mielinizazioan gertatzen diren gertaera nagusiak eta hauei gertatzen ahal zaien aldaketak.

GERTAERA NAGUSIAK	GARAIA	LOTUTAKO ALDAKETAK
ORGANIZAZIOA ➢ **Kortexeko neuronen geruzen orientazioa eta ijezketa** ➢ **Neuriten garapena, axoien eta dendriten adarkatzea** ➢ **Sinaptogenesia** ➢ **Heriotza zelular selektiboa** ➢ **Ugaritze glial eta desberdintzea**	Garai perinatala	• Azterapen mentala • Haur autismoa • Down sindromea • Duchene muskular distrofia • Axonal garapenaren alterazio familiarrak • Loturiko alterazioak…
MIELINIZAZIOA ➢ **Oligodendrozitoen ugaritzea** ➢ **Alineación de la cubierta de mielina**	Giza mielinizazioa: Bizitza osorako gestazioa bigarren hiruhilabetetik aurrera.	• Materia zuriaren hipoplasia • Leukomalazia parabentrikularra • Hipotiroidismo kognitiboa • Jaiotze ondorengo desnutrizioa…

Garuneko eremu batzuk beste batzuk baino sentikorragoak dira iskemia baten ostean, izan ere, egoera normal baten aurrean ere bere perfusioa txikiagoa da ondoko eremuekin konparatuz (1.taula). Eremu hauei baskularizazio eremu terminala deritzo eta garun arteria nagusienek irrigatzen dituzten eremuekin bat datoz. Oxigeno murrizpenarekiko sentikortasun handia duten neuronak hipokanpoko CA1 eremuko neuronak dira, Garun kortex hondoko kapak eta zerebeloko purkingel zelulak. Garun enborreko eremuan berriz, kaltetuenak agertzen diren eremuak behe kolikulua, nukleo okulomotorrak eta troklearrak, nerbio faziala eta trigeminoa eta bagoko nukleo motor dortsala dira (Romero-Esquiliano et al., 2004).

2.10 LESIO HIPOXIKO-ISKEMIKOAN PARTE HARTZEN DUTEN ELEMENTUAK

2.10.1 Odol fluxu eta sare baskularra

2.10.1.1 Garapen baskularra, hipoxia iskemia eta garun lesioak

Nerbio sistema zentralaren (CNS) garapenean, garunaren baskularizazioa angiogenesi bitartez garatzen da, odol hodi berrien haztearen bidez. Baskularizazio egoki baten gabeziaren dagoenean, neuroepitelioak apoptosi prozesu bat pairatzen du, ehunak suntsituz eta ondorio gisa garai enbrionarioko heriotza eraginez. Elikagai emate eta gasen hartu-emanaz gain, nerbio sistema zentralaren baskularizazioa espezializatua dago astrozito, zelula endotelial eta perizioen arteko interakzioen bitartez, barrera hematoentzefalikoa eratzen dutelarik eta sustantzien pasatzea mugatu (Brea et al., 2009).

2.10.1.2 Barrera hematoentzefalikoa

Barrera hematoentzefalikoa endotelio baskularreko zelulez osaturiko egitura morfologiko eta funtzionala da eta nerbio sistema eta inguruko odol fluxuaren arteko hartu-emana baimentzen du, nerbio sistema zentralaren funtzionamendu egokirako, beharrezkoa izanik difusio sistema hau (Escobar & González, 2008). Garuneko sare baskularreko funtzioen edozein motako aldaketak garunera elikadura ematean arazoak sortzeaz gain, tonu baskularra ere kaltetzen du, barrera honetan zeharreko sustantzien garraioan arazoak sortuz (de Vries et al., 1997; Fischer et al., 2002).

Barreraren hematoentzefalikoaren beste funtzio batzuen artean, nerbio sistema zentralaren babespena dago, odol sisteman ohikoak diren sustantzia neurotoxikoen efektuetatik eta baita periferiatik hedatzen eta garraiatzen diren sustantzietatik babesten dituena (Fishman, 1991; Sharma, 2003)

Laburbilduz, barrera hematoentzefalikoak hiru funtzio garrantzitsu betetzen ditu:

1. Garuna babesten du odol korrontean zirkulatzen dauden molekula eta konposatuez, endotelio eta garun kapilarren arteko lotura zorrotzen bitartez, izan ere era honetara oxigeno, glukosa, aminoazido eta beharrezko diren elikagaiak soilik pasa dezakete barrera.

2. Sare kapilarretik garun parenkimara garraio zehatza selektiboa, glukosa bidez eratzen den garraio erraztu baten bitartez edo ATP menpekoa den difusio aktiboz.
3. Odolean aurki ditzakegun elementuen metabolismoan edo aldaketa nerbio ehunera edo alderantziz.

Neuronako inguruneak paper garrantzitsua betetzen du kapilarretako zelula endotialen barrera hemantoentzefalikoaren funtzioan, nahiz eta gertatzen diren mekanismoak oraindik ezaguna ez diren (Bauer & Bauer, 2000). Zentzu honetan, barrera hemantoentzefalikoaren eratzea neurona arteko neurobaskularizazioaren ostean gertatzen da (Ballabh et al., 2004). Haurdunaldiaren 12.astean, barrera hematoentzefalikoan aurkitzen diren okludina eta klauduna-5 proteinak, telentzefaloko lehen basoetan adierazten dira (Virgintino et al., 2004). 12 eta 14 asteen artean, gizakian, teleentzefaloko baso txikiak, barreraren funtzioak betetzen hasten dira (Virgintino et al., 1998; 2004) eta giza helduetan agertzen den lotura endotelial estuak dituzte (Coomber & Stewart, 1985; Stewart et al., 1988)

Endotelioko lotura estuen egitura molekularra begiratzen badugu, mintzeko hiru proteina aurki ditzakegu: klaudina, okludina eta loturen itsaspeneko molekulak eta baita zitoplasmako proteina osagarriak diren Zonula ocludens (ZO), hala nola, ZO1, ZO2, ZO3 eta zingulina (Krause, 2002). Zitoplasmako proteinak aktinari loturik daude, aktina, zitoeskeletoko proteina nagusia da, endotelioaren estruktura eta funtzioa mantentzen duena. Aktina, proteina hauen amaierako zatiarekin lotzen da eta honela zelula endotelialen zitoplasmako lotura estuei elkartzen (Papadopoulos et al., 2001, Daniel Alonso-Alconada et al., 2011).

Astrozitoes gain, horma baskularra ordenatzeaz arduratzen direla, perizito eta zelula adbentitzioak estrukturan laguntzen dute eta hormaren egonkortasunean laguntzen du (Lai et al., 2005).

Hipoxiko edo iskemiko den edozein gertaera ostean, lotura hauetan aldaketak sortzen dira eta baita barrera hematoentzefalikoan. Aldaketa hauek zitokinen bitartez gertatzen dira eta baita endotelio baskularraren hazkuntza faktorea (VEGF) eta NO

bitartez ere. Batez ere hantura zitokinak handitzen dira, hala nola, IL1 eta TNF. Hipoxia iskemiak zitokinak, VEGF eta NOen aldaketak eratzean kalteak sortzen ditu baina dirudienez, astrozitoak babesle bezala jokatzen dute (Escobar, 2008; Fisher, 2002; Zhang et al., 2000).

2.10.2 Astrozitoak

Astrozitoak nerbio sistema zentraleko zelula ugarienak dira eta garapen eta barrera hematoentzefalikoaren mantentze funtzioa dute. Gainera, sinaptogenesia eta homeostasi metabolikoa erregulatzen dute (Barres 2008; Barnett & Linington, 2011).

Astrozitoak garuneko kaltearen modulazioan garrantzi handia daukate entzefaopatia hipoxiko iskemikoan (Takuma et al., 2004). Glukogenoa pilatzen dute, neuronentzako energia iturria baimenduz; faktore neurotrofikoak sintetizatu eta askatzen dituzte eta azkenean, NO, beste oxidatzaileen eta zitokinen pilaketa murrizten laguntzen dute, gainera glutamatoaren pilaketa galarazten duten arduradun nagusienak dira (Desagher et al., 1996; Chen et al., 2001; Volpe, 2001; Chen & Swanson, 2003).

Hipoxia iskemia baten ostean, astrozitoak berehalako heriotza pairatzen dute edo apoptosi prozesua hasten da. Zelularitate astrozitikoaren murrizteak garun kalte larriagoa izatea dakar, beraz, astrozitoentzat babesle den estrategiak erabiliz, neurobabesle ere izango litzateke (Martínez-Orgado, 2006). Garun iskemiaren ostean, astrozitoak neuronen biziraupenean eragina daukate, in vitro egindako ikerketen arabera, hipoxiak Faktore-1aren aktibitatea eragiten du, astrozitoetako eritropoietinaren adierazpenaren gehiegizko erregulazioa eraginez. Ondorioz, eritropoiesia gertatzen da eta neurobabespenean bitartekari bezala jokatzen du. Zentzu honetan, astrozito eta neurona arteko barneko berezko seinalizazio bideak hipoxia iskemia baten osteko babesean paper garrantzitsua izan dezake (Liu et al., 2006).

Glial fibrilary acidic protein (GFAP) delakoa, nerbio sistema zentraleko astrozitoetako zitoeskeletoan agertzen den bitarteko filamentua da. Proteina honen kantitatea

handitu egiten da hipoxia iskemia baten ostean eta honegatik astrozitoen bereizle den markatzaile espezifiko bezala erabiltzen da (Li et al., 1995).

Neuronak galdu direnean eta garun ehuna kaltetua dagoenean, astrozitoak ugaritu egiten dira eta konponketa histologikoko prozesuetan parte hartzen dute. Astrozitoen ugaritzeak ehunaren hutsuneak betetzen dituzte eta honi gliosia deritzo. Gliosi hau, ugaztun helduen nerbio sistema zentraleko kalte energetikoaren eragile nagusiena dela uste da. Baina, astrozitoak erradikal askeak eta hantura bitartekariak sortzen dituzte (Deguchi et al., 1997; Maslinska et al., 2002), eta hauek potentzialki onuragarriak dira nerbio sistema zentraleko zelulentzat.

2.10.3 Oligodendrozitoak

Hipoxia iskemia perinatala leukomalazia peribentrikularraren (PVL) eragile handiena da, aldeetako bentrikuluen sustantzia zuriaren kaltearen ondorioz sortzen dena (Noetzel & Brunstrom, 2001). PVL foku nekrosi bezala definitzen da, kaltetua dagoen sustantzia zuriaz inguratua dagoena eta selektiboki pro-oligodendrozitoak kaltetzen dituena (Nesse et al., 2005). Pro-oligodendrozito hauek berantiar epeko oligodendrozitoen gurasoak dira, sustantzia zuriko zelula nagusienak eta beraien murrizketak mielina gutxitzea dakar. PVL garun kaltearen eragile nagusiena da eta baita desordena kognitibo eta garun kaltearen portaerarena.

Aurreago esan dugun bezala, hainbat faktore fisiologikok garuneko sustantzia zuria kalte hipoxiko iskemikoarekiko aldez aurretik prestatzen duela uste da. Garunaren baskularizazio jaio berrietan garatu gabea da eta ondorioz odol presio aldaketa bortitzei moldatzeko arazoak dituzte. Hau honela, sustantzia zuriko zelulak, odol fluxu eta oxigeno murrizketari oso sentikorrak dira. Gainera, pro-oligodendrozitoak glutation kantitate murriztuak dituzte, eta honegatik bereziki sentikorrak dira estresaren ondorioz gertatzen den oxigeno murrizketari.

leukomalazia peribentrikularra gertatzeko arrisku une handiena oligodendrozitoen aintzindariak sustantzia zurian nagusitzen diren momentuarekin bat dator, hau da,

ugaritu eta desberdintzen direnean. Epe hau, mielina zorroen sintesi aktiboa gertatu aurretik gertatzen da (Back et al., 2001), gizakian haurdunaldiaren 23.astetik 32ra gertatzen delarik.

Mielina eratzen duten zelulak oligodendrozitoak dira, eta mielina hau garrantzitsua da nerbio inpultsuak nerbio sistema zentralera garraiatzeko. Hipoxia iskemiaren ondorioz sorturiko glutamatoaren exitotoxikotasuna, estres oxidatzailea eta sorturiko hanturak aldaketa morfologikoak sortzen ditu, nukleoen hedapena, piknosia eta mielina zakuen bakuolizazioa, oligodendrozitoen heriotza edo funtzionamendu okerra eraginez (Montaner, 2007). Glutamatoarekiko oso sentikor izateaz gain, (Ness et al., 2001; Park et al., 2004; Simonishvili, 2013), oligodendrozitoak estres oxidatzailearekiko oso sentikorrak dira, lipido, burdin kontzentrazio altu eta entzima antioxidatzaile gutxi dutelako.

Oligodendrozitoak kaltetu ditzaketen mekanismoak:

1. Neurotransmisore bitarteko toxikotasuna
2. Glutamato bitarteko toxikotasuna
3. ATP bitarteko toxikotasuna
4. Mitokondrioaren egoera eta estres oxidatzailea

Hantura kaltearen bidez eragindako mielinizazio ezan egindako ikerketek, oligodendrozitoak hantura eragiten duten zitokinekiko oso sentikorrak direla baieztatu dute (Hartung et al., 1992). Zitokinaren efektua, TNFα eta interferoiaren efektu zitotoxioaren eraginez gertatzen da eta efektu hau handiagoa da garatu gabeko oligoendrozitoetan garatutakoetan baino (Skof & Ghandour, 1995; Andrews et al., 1998).

Honegatik oso garrantzitsua da kaltearen lehenengo momentuetan ematen diren aldaketak identifikatzea, izan ere, kaltearen ostean oligodendrozitoetan gertatzen diren aldaketa hauek neuronetan gertatzen diren aldaketekin erlazionatu daitezke.

2.10.4 Mikroglia

Mikroglia jatorri mesenkimaleko zelulen multzoa da, odoleko monozitoetatik eratorriak direnak eta garapen enbrionarioko garai goiztiarretan nerbio sistemara Joan zirenak. Zelula hauek nerbio sistema zentrala betetzen dute garai fetalean, batez ere fetuaren garapenaren bigarren hiruhilabetekoan, ondoren, garapenaren zehar desberdinduak izateko (Gehrmann et al., 1995; Rezaie et al., 2004). Odoleko makrofagoen antzekoak dira eta honegatik mikrogliari *garuneko makrofago* deritzo.

Atsedenean dagoen mikroglia edo inaktibo dagoena, adarkapen txikiez osatua dago, baina aktibo dagoenean (lesio baten ostean) ameboide itsura edo borobilduago baten itsura hartzen du, makrofagoen antzekoa dena (Streit et al., 1999). Lehenengo fase batean, mikroglia fagozitiko ez diren irizpideen bitartez aktibatzen da (mikroglia hipertrofikoa) eta bigarren fasean, batez ere terminal edo neuronen degenerazioa gertatzen bada, mikroglia zelula fagozitiko bilakatzen da (mikroglia fagozitikoa) (Gehrmann et al., 1995).

Hipoxia iskemia zehar, mikrogliako zelulak oso azkar aktibatzen dira eta hantura eta konponketa prozesuetan parte hartzen dute. Garuneko odol fluxua handitu egiten da eta ondorioz, neurona eta gliaren funtzioa aldatzen da, garun kaltea eraginez eta edema zitotoxikoa (De Vries et al., 1997; Patel et al., 2003). Gaitasun fagozitikoa dute eta sustantzia ezberdinak askatzen dituzte aktibo direnean, hala nola, elastasa entzima, oxidatzaile diren hainbat erradikal aske eta hantura eragin edo deusezten duten zitokinak, interleukina 1, 3, 5, 6, TNFa, neurona garatzen duen faktorea eta garapen eta transformazio faktorea. Hantura bitartekari hauetariko batzuen eraginez (TNFa, IL-1b y LPS), mikrogliak astrozito eta oligodendrozitoengan eragiten duen kaltea handitzen du (Tahraoui et al., 2001).

Mikrogliaren aktibazioak duen eragin onuragarri edo kaltegarrietan eztabaida ugari dauden arren, hainbat ikerketek nerbio sistema zentraleko hainbat patologiatan neurobabesle bezala joka dezaketela uste dute. Honegatik, mikrogliak ere hainbat funtzio onuragarri izan ditzake hipoxia iskemia baten ostean, fagozitosi bidezko

hainbat sustantzien kentzea eragiten duelako, neuronei elikagaia ematen laguntzen du eta kanpoko zelulako mintza birmoldatzen (Imai et al., 2007; Lai & Todd, 2006; Hanisch, 2002).

2.11 PROBA TERAPEUTIKOAK

Asfixia baten osteko larritasun eta garrantzia, iraupenaren, sentikortasun iskemiko selektibo eta sakontasunaren araberakoa da. Sentikortasun iskemiko selektibo honek erabakiko du zelula batzuk hiltzea eta beste batzuk iluntasun iskemiko batean mantentzea.

Zehaztutako leiho terapeutiko bat dago non tratamendu batek garun kalte hau murriztu dezakeen, baina denbora hau igaro ostean, kaltea ezin da berreskuratu. Jaiotza normala duten umeetan, garun reperfusioa geroz eta lehenago hasi eta tratamendu bidezko erreskatatzea, orduan eta handiagoa izango da histologian eta klinikan duen ohiartzuna (Vannucci & Perlman, 1997; Tan & Parks, 1999). Garun kalte neurrizkoa edo txikia duten gaixoetan, onura hobeagoak izango dituzte parte-hartze terapeutiko honen ostean, baina hauek epe goiztiarrean identifikatzeko zailenak dira.

Orain arte, asfixia perinatala pairatzen duten jaio berriari, arreta intentsiboa egitera mugatu dira, hau da, oinarri hemodinamiko, arnasketa eta metabolikoak aztertu, eta konbultsioen tratamendu eta organo anitzeko disfuntzioen monitorizaziora. Estrategia terapeutiko honek ez du kalte hipoxiko iskemikoan eraginkorki jokatzen, izan ere, ez du kalte fisiopatologikoan eragiten. Kontrolpeko hipotermia izan da neuronen kalte sekundarioa murrizteko proposatu den parte-hartze terapeutiko bakarra. Animalietan egindako ikerketa esperimentalek, gorpu tenperatura 2-5ºC bitartean jaistean, kalte histologikoa eta kalte energetikoa gutxitzen dela erakutsi dute eta gizakian, neurrizko hipotermiak (33-34ºC) hipoxia iskemikoak eragiten duen ondorio neurologiakoak gutxitu ditzake, ondorio larririk gabe. Kontrolpean eginiko hipotermiak heriotza zelular eta neuronen garapeneko aldaketak murrizten ditu eta haurren heriotza tasa gutxitzen du (Silvera, 2011).

Hipotermiaz gain beste hainbat aukera terapeutiko proposatu dira, hipotermiarekin konbinatu daitezkeenak, bere eragin neurobabeslea handitzeko. Hipoxia iskemia baten ostean gertatzen den egoera nagusienetariko bat, oxigenoaren espezie erreaktiboen (ROS) garapen goiztiarra da (Li et al., 2009). ROSen produkzioaren handitzea, lipido eta proteina endogenoen antioxidatzaileak galtzea dakar eta ondorioz, neurona zelulen heriotza (Kelly, 1993; Margaill et al., 2005). Honegatik, geroz eta ikerketa gehiago egiten ari dira asfixia perinatalaren osteko antioxidatzaileen bitartezko tratamendua (Moosmann & Behl, 2002; McMahon et al., 2006).

Eragile asko ikertu dira terapia antioxidatzaile gisa, baina lan honetan 4 antioxidatzaileetan oinarritu gara, aurrerago egindako ikerketetan eragin neurobabesle bat dutela frogatuak daudenak eta efektu onuragarriak dituztela baieztatu direnak asfixia perinatal baten osteko garun kaltean. Hala ere, antioxidatzaile hauek eragina, hipokanpo eta kortexean aztertu da, beraz, gure lan honek, eragile hauen efektua aztertu nahi du entzefalo enborrean eta hauen eragina hipoxia iskemiaren ondoriozko entzumen ezgaitasunean.

Resberatrola (3,5,4-trihydroxystilbene) konposatu polifenol ez flabonoidea da, bi eraztun aromatikoz osatua dago, metileno bidez lotuak eta 72 landare espezie ezberdinek sortzen dute, hala nola, ardoaren mahatsak, pinuak, leguminosoek, kakahueteak eta sojaren eta granada landareak, baina Resberatrolaren iturri ezagunena ardo beltzean dago (Liu et al., 2007). Resberatrolaren efektu neurobabestzaileak beraren eragin antioxidatzailearengatik dator, beraren polifenolez osaturiko 2 eraztun metilenozko egiturarengatik daukana (Lopez-Miranda et al., 2012).

Melatonina (N-acetyl-5-methoxytryptamine) indolamina endogenoa da batez ere guruin pinealak eratzen duena eta odol zirkulaziora eta garun eta bizkarrezuz fluidora askatzen dena. Funtzio asko iradokitu zaizkio, hauen artean, erradikal askeen berriztapena (Tan et al., 2007) eta biomolekula oxidatzaileen oxidazioa (Reiter, 1998).

DHA (Docosahexaenoic acid) (22:6n-3) omega 3 kate luzeko gantz azidoa da, arrainean, izokin eta atunean aurki dezakeguna. Gizakian DHA kontzentrazio baxuak aurki

ditzakegu odolean, baina kontzentrazio altuak garun, erretina eta espermatozoideetan. DHAk plasmaren jariakortasuna baimentzen du, mintzetatik eremu sinaptikoetara eta ondorioz kitzikadura eta neuronen funtzio sinaptikoa ahalbidetuz (Wurtmar, 2008; Davis-Bruno & Tassinari, 2011). Haurdunaldian zeharreko DHA dieta bat izatea, babesa ematen dio jaio aurretiko haurrari, estres oxidatzailearen inhibizioaren bidez (Suganuma et al., 2013).

Nicotinaren hartzaile azetilkolinikoa (nAChR) aurrekoekin konparatuz, ikerketa gutxien dituen sustantzia da, azpitalde ugari dituelako bakoitzaren funtzio eta propietateen bidez sailkatzen direnak, baina gehienak funtzio antioxidatzailea dute. Gainera, glutamato bidezko neuronen toxikotasuna inhibitzen dute eta Bcl-2 eta beste proteina antiapoptotikoren adierazpena handitu (Hejmadi, 2003).

Estrategia terapeutiko hauek garatu gabeko garuneko kalteak murrizteko ditugun gaur egungo aukerak dira eta hainbat aukera ezberdin ditugu, izan ere hipoxia iskemia baten osteko heriotza zelularra gelditzeko aukera asko egon daiteke.

HIPOTESIA

Hipoxia iskemiak entzumen-sisteman aldaketak eragiten ditu. Kaltearen larritasuna gertaeraren graduaren arabera, iraupenaren arabera eta sentikortasun iskemiko selektiboaren araberakoa da (mekanismo fisiopatologikoa). Faktore guzti hauek, neurona multzo ezberdinen sentikortasuna zehartuko dute, batzuen heriotza eraginez eta beste batzuk iluntasun iskemikoan sartuz (leiho terapeutikoa). Jaiotzera iristen diren jaio berritan, garunaren erreperfusioa geroz eta lehenago hasi, orduan eta eragin handiagoa izango dute tratamenduak eta ondorio histologiko eta klinikoak txikiagoak izango dira. Hipoxia iskemia ostean erabiltzen diren estrategiak dira garrantzi handiena dutenak klinikan. Antioxidatzaile bidezko esku-hartzeak leiho terapeutikoa handitu dezake eta bere efektuak modelo esperimentalak erabiliz aztertuak izan daitezke.

Gure lanerako hipotesia, hipoxia iskemiak entzumen-sisteman, mesentzefaloan eta zehazki behe kolikuluan eragina duela da eta antioxidatzaile bidezko tratamenduak babes efektua izan dezakeela, kalte zelularra murriztuz eta entzumen defizita leunduz.

HELBURUAK

Gure hipotesia egiaztatzeko, gure lana ondorengo helburuekin antolatu da:

Helburu nagusia

Eraso hipoxiko-iskemikoak mesetzefaloan eta zehazki behe kolikuluan eragiten duen kaltea aztertzea eta antioxidatzaileek (Nikotina, Melatonina, Resveratrol eta Azido Dekosahenoikoa (DHA)) berarekiko duten babes-efektua aztertzea.

Helburu zehatzak:

1. ABR bitartez hipoxia iskemiak eragiten dituen barne belarriaren eta entzumen-bidearen aldaketa elektrofisiologikoak ikustea eta beraien berreskuratzea tratamendu neurobabestzaileen bitartez.
2. Talde ezberdinen azterketa histologikoa egitea, kaltearen gradua, hedapena, kokapen eta larritasuna ikusteko.
3. Mesentzefalo eta zehazki behe kolikuluko neurona eta zelula glialen heriotza zelularra aztertzea.
4. Mitokondrioaren egoera mitokondrioko mintzaren potentzialitate eta osotasuna aztertuz eta baita erradikal superoxidoen produkzioa eta eremu honetako kalte oxidatzailea.
5. Hipoxia iskemia ostean eta antioxidatzaileen osteko tratamenduan geneen adierazgarritasuna aztertzea
6. Aurreko ikerketen bitartez, tratamendu neurobabesleen efektua ikustea entzumen-bidean eta mesentzefaloan.

MATERIAL ETA METODOAK

ANIMALIAK

Lan honetan *Sprague Dawley* espezieko arratoiak erabili ziren, Euskal Herriko Unibertsitateko SGIKER animaliategiak emandakoak eta txerriak, Sus Scrofa espeziekoak, Galarretako Arri-Turri abeletxeak Gurutzetako Ospitale Unibertsitarioko Ikerketa eta esperimentazio zailera emandakoak.

Egindako prozedura esperimental guztiak Europar Batasunak ikerketa eta animaliekin esperimentazioa egiteko ezarrita dituen arauen arabera egin da (2010/63/EU). Gainera arratoiekin egindako prozesu guztiak Euskal Herriko Unibertsitateko animaliekin esperimentazioa egiteko etika batzordeak baimendu zituen (CEBA) (CEEA/341-344/2014/ALVAREZ DIAZ) eta txerriekin egindako prozesu guztiak Gurutzeta ospitale Unibertsitateko animalien ongizateko etika batzordeak onartu zituen (SP#009_09; SP#012_11).

A) ARRATOIAK

Animaliak Euskal Herriko (UPV/EHU) animaltegian mantendu ziren argi eta iluntasuneko 12 orduko zikloekin, janaria eta ura edozein momentutan eskuragarri zutelarik.

5.1 PROZESU KIRURGIKOA

Kalte hipoxiko-iskemikoa 7 eguneko arratoiei eragin zitzaien eta prozesua 2 fasetan banatua zegoen:

- Gertaera iskemikoa: Animaliek isofluorano bidezko anestesia pairatu zuten, %3,5 indukziorako eta %1,5 mantentzeko. Lehenengo ebakidura bat egin zitzaien arratoiei lepoan, ezkerreko arteria karotida isolatu eta bi korapiloz lotu zen 6/0 setak erabiliz. Ondoren karotida moztu eta kauterizatu zen eta intsizioa 3/0 seta bitartez itxi zen. Klorhexidina %1 bidez desinfektatu zen zauria eta animaliek beroa gal ez zezaten, prozesu guztia manta termiko bidez egin zen.

Gertaera iskemikoaren ostean, kumeak amarengana itzuli ziren prozesutik errekuperatu ahal izateko. Anestesiatik errekuperatzeko 2 ordu inguru behar zituzten.

Operazio bakoitzean igarotako denbora ez zen 15minutu baino luzeagoa izan inongo kasuan.

- Gertaera hipoxiako: 4 kumeko taldeak 1000mlko beirazko ontzietan sartu ziren eta hermetikoki itxi ziren. Ontziak 36,5ºC tako bainuan ipini ziren eta %8ko 0_2-%92ko N_2-a ontzi barnera zirkulatzea egin zen 135 minutuz.

Gertaera hipoxikoaren ostean, manta elektrikoan kokaturiko animaliak berpiztu ziren kanpo estimulu fisikoz lagunduz. Sakrifikatu ziren egunera arte bere amarekin ipini ziren.

5.2 TALDE ESPERIMENTALAK

Hauek dira talde esperimental bakoitzean erabilitako animali kopurua azterketa bakoitzerako:

-Azterketa elektrofisiologikoa; n=8

-Azterketa histologikoa: n=8

-Azterketa inmunohistologikoa: n=8

-Finkaturik ez dauden zelulen zitometria bidezko azterketa: n=5

-Finkaturik dauden zelulen zitometria bidezko azterketa: n=5

-Adierazpen genikoaren azterketa: n=5, Hiru kopiaz

Talde esperimentalak zoriz hautatu ziren eta tratamenduen dosia intraperitonealki eman zitzaien. Ondorengo hauek ziren talde esperimentalak:

<u>Kontrol taldea</u>

Talde honetan sartutako animaliei ez zitzaien inongo prozesu kirurgikorik egin, izan ere, aurrerago ikertua zegoen SHAM (anestesiaturiko animaliak eta ebaketa txiki bat zutenak, ondoren josi egin zena, honela animali hauek anestesia pairatu eta orbaindu beharreko zauria zuten) eta kontrol animaliek (inolako operazio kirurgiko gabe) emaitza berdinak emate zituztela.

Hipoxia iskemia taldea

Talde hauek gertaera hipoxiko iskemiakoa pairatu zuten, aurrerago zehazki deskribatu dena, ezkerreko arteria karotida moztu eta ondoren, oxigenoa %8ra murriztuz 2 ordu eta laurdenez.

Tratamendu zuten taldeak

Talde honetako animaliek Nikotina, Melatonina, Resveratrol eta DHA tratamenduak jaso zituzten, dosi, administrazio denbora eta disoluzio zehatz batzuetan, Aldagai hauek aurrerago egindako ikerketetan oinarritu ziren.

Tratamendua	Dosia	Disoluzioa	Administrazio denborak
Nikotina (N)	1.2 mg/kg (Chen et al., 2013)	Serum gazia	Hipoxia baino 2h lehenago
Melatonina (M)	15 mg/kg (Carloni et al., 2008)	Serum gazia eta DMSO 5%	Hipoxiatik 10 minutura
Resberatrola (RV)	20 mg/kg (West et al., 2007)	DMSO	Hipoxia baino 10 min lehenago
Docosahexaenoic acid (DHA)	1 mg/kg (Berman et al., 2009)	HSA %25 Serum gazian disolbatuta	Hipoxia baino 10 min lehenago

5.3 KALTEAREN IKERTZEN DENBORAK ETA ERABILITAKO METODOLOGIA

Ikerketa denbora ezberdinetan egin zen kalte hipoxiko iskemikoaren efektua eta tratamenduen eraginkortasuna zehazteko

Hipoxia iskemia baten ondoren egindako ikerketa eta erabilitako denborak ondorengoak izan ziren:

- Epe laburreko efektuak:

→ Bat bateko erantzuna: 0, 3, 12 ordutan (inmunohistokimika bitartez, hipoxiaren markatzailea erabiliz, qPCR bidezko geneen adierazpena eta mitokondriaren *"in vivo"* markatzaileak zitometria bidez).

→ Erantzun berantiarra: 24ordutara (TTC bidezko teknika infartua zein izan den ikusteko eta inmunomarkatzaileak, GFAP, NEUN eta Syp fluxuzko zitometria bitartez).

- Erdi epeko efektuak: 7egun (Elektrofisiologia, histología Nissl eta hematoxilina eosina tindatzaileen bitartez eta inmunohistokimika GFAP eta MBP bitartez).

5.4 IKERTUTAKO ZONALDEA



15. irudia: Arratoi garunaren ikusmen dortsala. 3.zatia da guri interesatzen zaigun eskualdea,non mesentzefaloa aurkitzen den.

Animalien burmuinak 3 zatitan banatu ziren eta guk ikertutakoa azken zonaldea zen (15.irudia). Hemen mesentzefaloa aurkitzen interauraletik 0,30mmko distantziara eta bregmatik 9,30mmko distantziara (Paxinos, 1986). Gainera, entzefalo enborra aztertzeaz gain behe kolikulua aztertu genuen zehazki.

Azterketa morfologiko eta inmunohistologikoetarako 5µmtan moztutako mesentzefaloko zatiak erabili ziren, behe kolikulua aurkitzen dugun tokia (16.irudia). Infartuaren zonaldea, zitometria bidezko parametro zelularraren eta adierazpen genikoaren analisirako berriz, mesentzefalo osoa erabili zen.



16.irudia: Mesentzefaloaren irudia (Bregmatik 9,30mmtara eta interauraletik 0,3mmra) non ikerketaren ipsilateral hemisferioa irudikatua dagoen. Laburdura: Behe kolikuloko erdiko nukleoak (CIC) eta behe kolikuloko kanpoko kortexa (ECIC).

5.5 AZTERKETA ELEKTROFISIOLOGIKOA

Animaliak pisatu ostean Ketolar/Xilazinarekin anestesiatu ziren 40-90/5-10 mg/kg dosia emanez intraperitonealki eta ondoren entzumeneko potentzial ebokatuak neurtu ziren GSI Audea programa erabiliz, softwaren 1.0.3.4 bertsioa erabiliz.

Honetarako garunean 3 hiltze sartu zitzaizkien, bat garunaren erdian (polo positiboa) beste bat ipsilateral edo kaltetutako aldeko belarrian (polo negatiboa) eta hirugarrena gorputzean (lurra) (17.irudia). Neurketa hau soinurik gabeko gela batean egin zen, kanpoko soinuak gure emaitzetan eraginiz izan ez zezaten.



17.irudia: Elektrodoen kokapen zehatzaren irudi adierazgarria arratoi heldu batean (guk 7eguneko arratoietan egin dugu analisia).

Aparatuak potentzial elektrikoaren aldaketak jasotzen zituen, estimulua egitura anatomiko ezberdinetara iristen zenean sortzen ziren aldaketak hain zuzen ere eta emaitzak, erantzuna jaso arte igarotako denbora (ms) eta erantzunaren intentsitate (µV) bezala jasotzen ziren.

Frekuentzien jasotzearen ezaugarri teknikoak ondorengoak ziren: 10msko eskaneatzea, 150Hzko iragazkiarekin frekuentzia baxuetarako eta 3000HZko iragazkiarekin altuetarako; sentsibilitatea 10mcv/div. Estimulua click bitartez egin zen eta 1024 eta 2048 bitarteko erantzunen media egin zen. Azterketa 100db HLko intentsitatedun click bitartez egin zen.

Neurketa 3 aldiz errepikatu zen belarri bakoitzean eta ondoren animaliak perfunditu ziren nahi genuen lagina hartuz.

Analizaturiko parametroak: pasatako denbora (ms) erantzuna jaso arte, intentsitate (µV) eta tontorren arteko denbora tartea (ms) izan ziren.

5.6 AZTERKETA MORFOLOGIKORAKO ANIMALIEN NEKROPSIA ETA LAGINEN JASOTZEA

5.6.1 Fizatzea

Animaliak 50µl Dolethal (20g/100ml-ko kontzentrazioa) intraperitonealki emandako injekzio baten bitartez sakrifikatu ziren: Bere printzipio aktiboa pentobarbital sodikoa da, azido barbiturikotik datorren konposatua, akzio motzekoa, bere efektu nagusiena nerbio sistema zentrala deprimitzea izanik. Animalia garbitzeko eskuineko bentrikulutik serum fisiologikoa eta 1%era zegoen heparina injektatu ziren, ponpa peristaltiko bidez administratu zirenak, presio eta fluxu konstantean. Ondoren, ezker aurikula moztu zen odolaren drainatze askea izateko. Gorputz-adarra begiratuz, (poliki-poliki zuritzen doazenak), animaliak %4ko paraformaldehido perfusioarekin fizatu zen eta animaliaren zurruntasuna baieztatu ondoren, interesatzen zitzaigun mesentzefalo lagina atera genuen. Ondorengo fizatzea laginak %4ko paraformaldehidoan 24 ordu mantenduz egin zen.

5.6.2 Parafinan inklusioa

Lagina fizatua zegoenenan izendutako saskitxoetan sartu ziren parafinan inklusioa egiteko, ondorengo protokoloaren bitartez:

Laginak, geroz eta handiagoko alkohol kontzentrazioetan sartu ziren: 50ºko alkoholean (ordu 1 eta 30 minutuz), 70ºko alkoholean (ordu 1 eta 30 minutuz), 96ºko alkoholean 2 pausu (bakoitza 30 minutukoa) eta 100ºko alkoholean 3 pausu (bakoitza ordu 1 eta 30 minutukoa). Ondoren, metilozko benzoatoan bi pausu egin ziren eta amaitzeko parafina likidoan inklusioa egin zen 60ºko estufan. Parafina likidoan dauden laginak parafina moldetan ipini ziren. Prozesua bukatu ostean, egindako moldeak mikrotomo (1150/ Acounto Reichert Jung) bidez moztu ziren. Jarraikako 5 zati moztu ziren, bakoitza 5 µmtakoa, eta hematoxilina-eosinaz tindatu ziren. Aukeratutako laginak Nissl bidez ere tindatu ziren eta inmunohistokimikako erreakzioak ere lagin hauetan egin ziren, GFAP eta MBP proteinentzako.

5.6.3 Hematoxilina-eosina tindaketa

Tindaketa hau 2 koloratzaile bitartez osatua dago, Harrisen hematoxilina, izaera basikoko koloratzaile naturala da. Elkarketak ditu intentsitate baxuko eta ahulki azidoa diren kromogenoak, gogorki basikoak diren auxokromo kationikoekin, azken hauek koloratzailearen karga globalaren arduradunak direnak eta azido nukleiko formako zelulen nukleoak koloreztatzen ditu batez ere, egitura basikoak direlako. Eosinak berriz, intentsitate baxuko eta ahulki basikoak diren kromogenoak gogorki azidoak diren auxokromo kationikoekin egiten dituzte loturak. Eosina hidroxixanteniko halogenatuetan dauka jatorria eta koloratzaile zitoplasmatikoak espezifikotasun gutxiago duenez nukleoko koloratzaileekin konparatuz, kanpoko zelulako ehunen egiturarekin elkartzen da, kolorazioa eraginez.

Parafinan inklusioa duten laginen tindaketa egiteko, lehenengo 2 orduz 60ºko estufan mantendu ziren eta ondoren zitrosolean desparafinatu ziren (10 minutuko 2 pausutan). Laginak alkoholen bidezko murgiltzearen bitartez hidratatu ziren (minutu bat alkohol bakoitzean), kasu honetan, geroz eta kontzentrazio baxuagoko alkoholetako pausuak eginez: 100ºko alkohola, 96ºko alkohola (2 pausu), 70ºko alkohola eta azkenik uretan. Laginak hematoxilina sartu ziren 3 minutu eta erdiz eta urez garbitu ziren. Ondoren eosinan sartu ziren 20 segundoz eta urarekin garbitu ziren berriz. Hau amaitzean laginak berriz ere deshidratatu ziren (10segunduz pausu bakoitzean): 70ºko alkohola lehenengo, ondoren 96ºko alkohola eta azkenik 100ºko alkoholena sartuz (2 aldiz), fizatzeko zitrosolean mantendu ziren 10 minutuko bi pausu eginez eta DPX (Fluka, Sigma-Aldrich, St Louis, Mo, DPX EEUU) bidez muntai histologikoa egin zen.

5.6.4 Kresilo violeta bidezko tindaketa (Nissl)

Teknika hau Kresilo violeta koloratzailearen bitartez egin zen, nerbio ehunetarako argentikoa ez den koloratzaile bat. Kresilo bioleta azido nukleikoari lotzen da erakarpen elektrostatiko bidezko mekanismo fisiko kimiko bitartez, Nissl granuluak eta nukleoloak tindatzen, izan ere, RNAz osatuak daude. Granuluak erretikulu

endoplasmatiko bikortsuaren pilaketak dira neuronen eta polirribosomen zitoplasman aurkitzen direnak.

Lagin histologikoen tindaketarako hurrengo pausuak jarraitu ziren: xilolarekin desparafinatu zen 10 minutuzko 2 pausuz eta laginak geroz eta kontzentrazio baxuko alkoholetan sartu ziren, aurrerago azaldu dugun bezala, 100ºko alkoholeko minutu bateko pausu bat, minutu bateko 2 pausu 96ºko alkoholean eta minutu bateko pausu bat 70ºko alkoholean, azkenik ur destilaturekin garbitu ziren.

Jarraian Kresilo bioletazko tanpoi batean sartu ziren (1g kresilo bioleta 500ml ur destilatutan eta azido azetikoaren 4 tantanekin) 10 minutuz eta ondoren ur destilatuarekin garbitu ziren, gehiegizko koloratzailea kentzeko. Laginak kontzentrazio baxutik alturako alkohol kontzentrazioetan sartu ziren deshidratatzeko aurrerago azaldu dugun bezala eta xilolean fizatu ostean muntaia DPXaren bidez egin zen.

5.7 ZELULA HIPOXIKO ETA INFARTU ZELULARRAREN AZTERKETA

5.7.1 Hipoxia markatzaile baten bidezko tindaketa

Arratoien garunean hipoxia gertatu den edo ez ikusteko hipoxia markatzaile berezi bat erabili zen, hypoxyprobe-1 (Hypoxyprobe Inc. Burlington MA, USA). Intraperitonealki hypoxiprobe (60mg/kg) dosia injektatu zitzaien gertaera hipoxia gertatu aurretik. Hipoxia ostean animalia hil eta mesentzefalo lagina hartu genuen, 6.1 eta 6.2 puntuetan azaldu dugun bezala.

Hypoxyprobe-1 ehun guztietan zehar banatzen da, baita garunean ere, baina loturak thiol duten proteinei soilik egiten die: zelula hauek 14 µM baino gutxiagoko oxigeno kontzentrazioaren gutxitzea pairatu dutenak dira. Barne peroxidasaren H2O2arekin (%3) blokeatu ostean eta parafinan fizaturiko laginaren hidratazioaren ostean Hypoxyprobe - 1 MAb1 antigorputz primarioarekin (1/5) inkubatu ziren ordu batez.

Serumarekin garbiketa ugari egin ostean, laginak peroxidasarekin elkartuta dagoen serum anti-mouse-arekin (1/5000) inkubatu ziren 10 minutuz. Antigorputz primarioaren presentzia laginak 7 minutuz diaminobenzidinarekin (DAB) inkubatuz

lortu zen. Honen ostean, laginak hematoxilinarekin tindatu ziren 10 segunduz eta urarekin garbiketak egin ostean, laginak deshidratatu eta muntaia egin zen aurrerago azaldutako era berean.

5.7.2 TTC Tindaketa

Hipoxia iskemiak, arratoien garunean sortzen duen infartuaren zonaldea balioztatzeko, tetrazolio kloruro (TTC) tindaketa erabili genuen (Syp, Sigma-Aldrich, St Louis, Mo, EEUU). Kalte hipoxiko-iskemikoa egin eta 24 ordu ostean, animalia hil eta mesentzefaloa zatikatu zen 2mmko lodierako zatiak eginez. Ehuna TTC %2ko soluzioan inkubatu zen 37ºCtan 30 minutuz eta ondoren 24 orduz %4ko paraformaldehidoan fizatu zen

TTC bidez tindaturiko ehunen argazkiak kamera digital bidez (Canon PC1059, Canon U.S.A., Inc.One Canon Park, Melville, NY) atera ziren, kamara hau lupa (Edmund Optics Inc, East Gloucester Pike, Barrington, USA) bati akoplatua egonik

5.8 INMUNOHISTOKIMIKA BIDEZKO KALTEAREN BALORAZIOA

5.8.1 Aktibitate glialaren azterketa

Garun kaltearen ezaugarrietako bat aktibitate glialaren agerpena da eta bere ikerketarako GFAP (Dako, Denmark) bidezko markapen bat egin zen.

Markatzea parafinan fizaturiko laginetan egin zen 7.1 eta 7.2 puntuetan azaldu dugun bezala. Laginak hidratatu egin ziren, hematoxilina-eosina eta Nissl kasuetan bezala eta ondoren barne peroxidasa blokeatu zen %1eko H2O2aren bidez. Ondoren mintza iragazkortu zen %1eko PBS eta %0,1eko Tween bidez 10 minutuz eta behi serum (BSA) bidez blokeatu zen %0,5 PBSan 20 minutuz. Laginak rabbit anti-GFAP antigorputz primarioarekin (1/500) inkubatu ziren PBS-BSA-TWEEN %1eko kontzentrazioan, ganbara heze (4ºC) batean gau guztia mantenduz.

Hurrengo egunean, %1eko PBS arekin 3 garbiketa egin ostean, peroxidasadun antigorputz sekundarioarekin inkubatu ziren (HRP anti-rabbit 1:100, Santa Cruz

Biotechnology, CA, USA) ordu batez. Inkubazioaren ostean, PBSarekin garbitu ziren antigorputzaren hondarrak kentzeko eta DABkin tindatu ziren 7 minutuz. Ondoren hematoxilinarekin tindatu ziren 10 segundoz eta aurreko prozesuetan bezala, deshidratatu ostean xilol bidez fizatu eta DPXarekin muntaia egin zen.

5.8.2 Sustantzia zuriaren azterketa

Sustantzia zuriaren kaltea ikusteko MBP bidezko markatzailea erabili zen, laginak 9.1 puntuan bezala tratatu ziren antigorputz primarioarekin inkubazioa egin arte, hau mouse anti-MBP (1:200, Santa Cruz Biotechnology, CA, USA) bidez egin zen. 4ºCz inkubatu zen gau osoan zehar eta hurrengo egunean, peroxidasarekin konjugaturiko antigorputz sekundarioarekin inkubatu zen (HRP anti-mouse 1:100, Santa Cruz Biotechnology, CA, USA) ordu batez. GFAP bidezko inmunohistokimikan egin genuen bezala, laginak DABrekin tindatu ziren eta ondoren hematoxilinarekin deshidratatu aurretik, fizatu eta muntaia egin aurretik.

5.9 KALTEAREN BALORAZIO MORFOLOGIKOA

1) Kaltearen balorazio morfologikoa egiteko, hematoxilina-eosinaz zein Nissl bidez tindatutako laginak mikroskopio bidez begiztatu ziren eta zelulen analisi kuantitatibo bat egin genuen.Hau da, neuronak bere morfologia naturala mantentzen zuten edo ez begiratu zen ondoko puntuak kontuan hartuta:
    a. Zelulen tamaina
    b. Luzapenak
    c. Zitoplasmaren kondentsazio maila
    d. Nukleoko kromatina maila
    e. Neuropiloaren dentsitatea

2) Zeluletan gertatu den hipoxiari dagokionez, mikrokopio optiko bitartez aztertu ziren hipoxia iskemia pairatu zuten animaliek hypoxyprobe-1 markatzailea erakusten zuten edo ez.

3) Aktibazio glialaren azterketan, mikroskopio optikoz begiratu zen ia astrozitoen erreaktibitate maila handiagoa zen edo ez kalteturik zeuden animalien kasuan eta trataturiko animalien arteko ezberdintasunak. Analisia kualitatiboa izan zen.

4) Inmunomarkatzeile bidezko dentsitometria bideo kamera erabiliz aztertu ziren, irudiaren analisian oinarriturik dagoena (National Institutes of Health Image software, public domain) (http://rsb.info.nih.gov/nih-image/), lehenago Liu et al., (2002) deskribatu zuen bezala. TIFF formatoa zuten irudiak digitalizatu, moztu eta binarizatu ziren (zuria vs beltza). Pixel beltzak kontatu ziren hemisferioko eta mediak kalkulatu ziren garun bakoitzeko. Gutxienez 8 lagin erabili genituen azterketa egiteko. Dentsitometriako emaitzak, esker hemisferioa eskumarekiko MBP pixel ratio bezala azaltzen dira (ezkerra/eskuina).

5.10 FLUXUZKO ZITOMETRIA BIDEZKO ZELULEN FUNTZIONALTASUNAREN AZTERKETA

Fluxuzko zitometria erreminta garrantzitsua izan zen zelulen analisirako. Zelulen ezaugarri fisikoen azterketarako ondorengo parametroak kontuan hartu ziren.

FALS (Forward Angel Light Scatter): Laserraren argia da zelulak beraiek islatzen dutenak. Tamaina, zelulen tamainarekin bat dator, izan ere, zelularen diametroarekin zuzenki erlazionatua dago eta banakako zelulak, zelular multzoetatik eta zelula hondakinetatik desberdintzea baimentzen du, gainera hildako eta bizirik dauden zelulak desberdintzea ahalbidetzen du.

ISS (Integrated Side Scatter):Laserraren argiarekiko 90ºko angelura zelulak islatzen duen argia da. Zitoplasmaren azterketa egitea baimentzen du, zitoplasma konplexua denean, islatzea handiagoa da desbideratzen den laserraren argiaren proportzioa handiagoa delako. Gainera hildako eta bizirik dauden zelulak desberdintzen ditu ere, hildako zelulak zitoplasma oso kondentsatuta eta pikortsuagoa dutelako eta seinale gehiago ematen dutelako.

5.10.1 In vivo suspentsio zelularraren lortzea

Zelularen funtzionaltasuna aztertzeko erabili diren animalien garunak, glukosalina daukan serum bitartez perfunditu ziren hodietan dagoen odola ateratzeko. Interesatzen zitzaigun zonaldea aukeratu eta zati txikitan moztu zen, izotzean eta glukosalinarekin. 70 µmtako poroak zituen iragazkietan ipini zen lortutako suspentsio zelularra eta 6 putzutako plaketan jarri ziren. Plaka hau 4ml kolagenasarekin 5 mg/ml Hanksen (HBSS; Sigma-Aldrich, St Louis, Mo, EEUU) diluitua inkubatu zen, mugimenduan, 37ºCko estufa baten 20 minutuz.

Iragazkiak zeuden plaka hauetatik suspentsio zelularra hartu zen eta iragazkiak bota egin ziren. Falcon hodietan ipini zen suspentsioa eta 5mlko Hanks soluzioa gehitu zitzaien eta 1640gtan zentrifugatu zen 5 minutuz. Zentrifugazioaren ostean, pelleta berriz 5mlko Hanks soluzioan suspenditu zen.

5.10.1.1 Mitokondrio mintzaren potentzialtasunaren azterketa

Azterketa hauek zitometria bidez egin ziren garunaren ehunaren suspentsio zelularretan. Mitokondrio mintzaren potentzialtasuna bizirik zeuden zeluletan ikertu zen Rhodamina 123 (Rh-123, Invitrogen, The Netherlands) fluorokromo lipofiliko kationikoaren barneraketa kuantifikatuz, hau mitokondrio barnean pilatzen da mintz potentzialaren intentsitatearekiko proportzionalki.

Mitokondrioaren aktibitatea barne eta kanpo mintzaren arteko potentzial diferentziaren ($\Delta\Psi m$) mantentzean islatzen da, ondorioz, mintzen aldeetako kargen distribuzio asimetrikoa beharrezkoa da ATParen sintesirako. Mintzeko $\Delta\Psi$ neurtzeak, mitokondrioaren aktibitate metabolikoa neurtzea baimentzen digu, izan ere, honen aldaketan, hau da, mitokondrio mintzaren potentzial galera mitokondrio bideko apoptosi prozesuan bereizgarria da.

Suspentsio zelularra (650µl, $1x10^6$ zelula/ml) 37ºCko estufan inkubatu ziren 30 minutuz Rho123 (4 µl 100ml Hanksen) soluzioan. Denbora honen ostean zelulak bi aldiz garbitu ziren 5 minutuko 1640g bidezko zentrifugazio bidez eta ondoren berriz inkubatu ziren 30 minutuz 37ºCko estufan. Zelulak berriz garbitu ondoren (5min 1640g) zitometrora eraman ziren analisia egiteko.

5.10.1.2 Erradikal superoxidoen produkzioa

Erradikal askeen analisirako oxidazioari sentikorra den fluorokromo bat erabili genuen, flureszeinako diazetatoa (2,7-dichlorodihydrofluorescein diacetate, DCFH-DA, Molecular Probes, Herbehereak). Erradikal-DArekin konfigurazioak zitoplasmara pasiboki sartzea ahalbidetzen du. Barnean egonik, diazetato taldeak barne zelulako esterasa bitartez askatzen dira, DCFH sortuz, konposatu polarra zelula barnean bahituta gelditzen dena. DCFH molekula fluorescente bilakatu daiteke, 2,7 diklorofluoreszeina (DCF) hidrogenioiak galtzen dituenean zelulan dagoen oxigeno peroxidoaren (H_2O_2) akzioaren eraginez.

Suspentsio zelularra (650 µl, 1 x10^6 zelula/ml gutxi gorabehera) 30 minutuz inkubatu zen Hanksen zegoen 10 µM DCFH-DArekin. Ondoren, bi garbiketa egin ziren (bakoitza 5minutukoa eta zentrifugazioa 1640g), 350µl Hanksen berriz suspenditu zen eta fluxuzko zitometriara eraman zen analisirako.

5.10.2 Suspentsio zelular fizatuen lortzea

In vivo egindako analisien ostean, soberan gelditu zitzaigun suspentsio zelularra, Hanksen suspendituta zegoena 70ºko alkoholarekin fizatu zen, 2ml alkohol botaz eta 4ºCtan gordez.

5.10.2.1 Mitokondrio mintzaren integritatearen kuantifikazioa

10-N-nonyl-acridin orange (NAO) (NAO, Invitrogen, The Netherlands) fluorokromoa kardiolipinari selektiboki lotzen zaio, mitokondrioaren barne mintzean espezifikoki aurkitzen den fosfolipidoa, era honetan zelularen mitokondrioaren egoera zein den azter daitekeelarik.

Honetarako suspentsio zelularreko (650 µl, 1 x10^6 zelula/ml gutxi gorabehera) bi aldiz garbitu ziren (zentrifugazioz, 1640g 5minutuz bakoitza) eta pelleta NAO (10^{-2} M)ekin markatu zen 30 minutuz Hanks medioan eta 37ºCko estufan. Gehiegizko NAO kantitatea kendu zen aurrerago bezala egindako garbiketen bitartez eta igortzen duen fluoreszentzia neurtu genuen fluxuzko zitometro bidez.

5.10.3 Funtzionaltasunaren azterketan erlazionaturik dauden jatorri ezberdinen zelulen identifikazioa

Azterketa honetarako 10.2 puntuan azaldu dugun eran fizaturiko zelulen suspentsioak erabili ziren. Astrozito eta neuronen identifikazioa kaltea gertatu eta 24 ordutara, fluxuzko zitetria bidez egin zen eta baita sinaptofisinarekiko positibo ziren zelulen kuantifikazioa.

Honetarako inmunofluoreszentzia protokolo komun bat erabili zen. Neuronen azterketarako, markatzaile espezifiko bat erabili zen, NeuN (Millipore, Massachussetts, EEUU), astrozitoak aztertzeko, GFAP (DAKO, Glostru, Denmark) markatzailea eta sinapsi bidezko loturak aztertzeko Synaptophisyn (Syp, Sigma-Aldrich, St Louis, Mo, EEUU) proteina markatzaileren bidez.

Antigorputz primarioa	kontzentrazioa primarioarena	Antigorputz sekundarioa	kontzentrazioa sekundarioarena
Mouse Anti-NeuN	1:100	Anti-mouse IgG Alexa fluor 488	1:500
Rabbit Anti-GFAP	1:500	Anti-rabbit IgG Alexa fluor 488	1:500
Mouse Anti -Syp	1:500	Anti-mouse IgG Alexa fluor 488	1:500

Zelulak (10^6 zelula/ml) bi aldiz garbitu ziren PBSarekin eta %1ean zegoen tween20an inkubatu ziren 10 minutuz, mintza iragazkortzeko. Ondoren, 5 minutuko zentrifugazio 16450g bidezko garbiketaren ostean, %0,5ean zegoen PBS-BSA bidez blokeatu zen bi aldiz bakoitza bost minutuz. Pelletak berriro 200 µl %0,5ean zegoen PBS-BSA Tween20an suspenditu ziren antigorputz primarioarekin eta 4ºCtan mantendu ziren gau osoan zehar.

Hurrengo egunean, antigorputz primarioarekin egindako inkubazioaren ostean, bi garbiketa egin ziren %0,5ean zegoen PBS-BSAn 5 minutuz bakoitza eta antigorputz sekundarioan inkubatu ziren %0,5 PBS-BSArekin konjugaturik giroko tenperaturan ordu

batez. Ondoren suspentsioa PBSarekin garbitu zen eta 400µl PBS bota zitzaion fluxuzko zitometriara eraman aurretik.

Lotura ez espezifikoa, zelulak fluorokromoari lotuta zegoen antigorputz sekundarioarekin soilik inkubatuz neurtu zen. Eta lagin zuria zelulak soilik izanik.

5.11 MAILA MOLEKULARREAN EGINDAKO AZTERKETA: qPCR

Analisi molekularra egiteko, animalia hil zen kaltea egin eta denbora ezberdinetan, 0,3 eta 12 ordutara, gene ezberdinen adierazpenaren aldaketa ikusteko.

5.11.1 RNA erauzketa

Animalia glukosadun serumarekin perfunditu ostean eta garuna atera ostean, mesentzefaloa eppendorf hodi baten jaso zen eta RNA erauzi genuen PureLink® RNA Mini Kit (life technologies, 5791 Van Allen Way | Carlsbad, CA 92008 USA) kitaren bitartez.

Laginari 600 µl lisis bufferra bota zitzaion 2-merkaptoetanolarekin eta “rotor-stator homogenizador” homogeneizatu ondoren 45 segundoz abiadura maximora, laginak 5 minutuz zentrifugatu ziren 2600gtara giroko tenperaturan.Ondoren lagina fizatu, garbitu eta eluzitu egin zen, fizatu %70eko alkoholaren bitartez, garbiketa kitean zetorren Wash Buffer I eta II bitartez eta eluzioa RNasa gabeko 90 µl urez minutu bat inkubatuz giroko tenperaturan. Prozesu guzti hau erauzketa zutabe bidez egin zen. Erauzketa egin ondoren, RNAren kantitate eta kalitatea neurtu zen Elisa plakak irakurtzen dituen aparatu baten bidez, zeinek Nanodrop (Multi-Mode Microplate Reader, Biotek Instruments, INC. Winooski,Vermont, USA) sistema gehituta duen.

5.11.2 RT (Reverse transcription)

RTa Fluidigm ® Reverse Transcription Master Mix (Fluidigm Europe B.V. Herikerbergweg, 238 1101 CM Amsterdam Zuidoost, The Netherlands) cDNA preparazio baten bidez egin zen.

Lehen primer mixa prestatu zen RTrako Master mixarekin ondorengo erara:

Primer Mix

	OSAGAIAK	BOLUMENA/ERREAKZIOA (µL)
Pre-Mix	RT Master Mix	1
	RNasa free water	3
	RNA (2,5 ng/µl-250 ng/µl)	1
	BOLUMEN TOTALA	5

Zentrifugatu ostean termozikladorean ipini ziren laginak erreakzioa gerta zedin:

Egoera	**Mantentzea**	**Mantentzea**	**Mantentzea**	**Mantentzea**
Tenperatura	25 ºC	42 ºC	85 ºC	4 ºC
Denbora	5 min	30 min	5 min	

Erreakzioaren ostean laginak -20ºCtara izoztu ziren ondoren preamplifikatuak izateko.

5.11.3 Anplifikazioa

Primer mix (10x)aren 500 nM prestatu ziren ondorengo erara:

	Osagaiak	Bolumena / Erreakzioa (µl)
Pre-Mix	2 x TaqMan PreAmp Master Mix	2,5
	500nM (10x) primer mixture	0,5
	Ura	0,75
	cDNA	1,25
	Totala	5

